

Ongizate estatua kolokan

- Oparotasunetik pobreziara jausi direnen egunerokoa
- Hezkuntzako eragileak desobedientziarako prestatzen
- Pentsiodunak borrokan, erreformaren aurrean

GREBA



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 125 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathón
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK

elkarlanean





Azaleko argazkia:
LUIS JAUREGIALTZO/
ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitara ditzakezu, gure
egiletza aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona.
Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredak-
zio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel
Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda
Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza.
Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua:
Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon
Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos
Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea:
Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta,
Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen
Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa),
943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta
Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000.
Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. esku-
ina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONI-
KOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: [harpi-
detza@argia.com](mailto:harpi-
detza@argia.com). Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten:
www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-
909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza
S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal
Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182
euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko ekainaren 2a, 2.371. zenbakia

ASTEKO GAIA

KRISI EKONOMIKOA Kinka larriak lotsatuta.

ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

PERTSONAIA

ANTXON ARZA: «Zer egin dugun baino, zer egin dezakegun
pentsatu behar dugu». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

EDU ZABALA, AITOR OTAÑO: «Desobedientziaren bidea ere
jorratu beharko dugu hezkuntzan». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

ERRESISTENTZIA BAKETSUA ETA DEMOKRAZIA

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 20

OKERBIDE ESTATUA INAKI ODRIÓZOLA / 22

NUCLENOR-EK ADARRA JO DIGU BERRIZ

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Zaborra. AMETS ARZALLUS / 22

ERDIKO KAIERA

JENDAURREKO IRAKURRALDIA Euskal literatura bogan,
Hendaian. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 24

FRAN SAURÉ, KOMIKI EDITOREA: «Autoreen arteko elkar
ulertzea eta ekimena bilatzen ditut».

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 28

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE, MIKEL ASURMENDI / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Euskal literaturaren beharrianak aztergai Larrabetzun.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 33

IHESI HONDARRIBIA (GIPUZKOA) Mundu baten hasiera.

ARITZ GALARRAGA / 34

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

PENTSIODUNAK ETA MURRIZKETAK Atzo borrokan,
gaur ere bai. URKO APAOLAZA AVILA / 40

GURASOEN EUSKALDUNTZEA Eskolako lanak akuilu
euskarara hurbiltzeko. IURE EIZAGIRRE / 44

ESA URTEGIAREN HANDITZEA Inguruko herriak ebakuatzea
gomendatu du geologo batek. JON TORNER ZABALA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Zatoz Alemaniara, lana nahi duten ausarten
paradisura. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Kinka larriak lotsatuta

Estu dira herritarrak, soldatak galdu dituztelako, etxebizitza ordaindu ezinik dabiltzalako, aurrezki denak irentsi dituztelako, batzuetan zer jan ez daukatelako. Asko eta asko, oraindik ez dira ausartu Caritasera edo udaleko gizarte zerbitzuetara joaten, nork ikusiko beldurrez, eta haien ustez, norberaren porrot ikaragarria dena onartu ezinik.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



ARGAZKI PRESS

Barakaldoko Berri Otxoak elkartearen protesta. Elkarteko kide Ainhoa Irazabalen ustez, hala izan beharko ez balu ere, krisi honetan kalera ateratzen denak, borroka egiten duenak, lortzen du zerbait, etxean geratzen denak ezer ere ez.

TRISTE DIRA AZPEITIAN (Gipuzkoa). 14.000 biztanle inguru dituen herrian ohikoa zen bertatik atera gabe lan egitea. Altzairuak eta altzariak azpeitiar askori ematen zieten jaten. Krisiaren ondorioz bi sektoreak dira gainbehera. Maila dotorean bizitzen ohitutako herriak kolpe galanta hartu du.

Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen datuen arabera, 2008an gizarte bazterkeria

egoeran zeuden 111 familiak laguntza ekonomikoa jaso zuten. 2012an 396 familiak behar izan zituzten era bateko edo besteko laguntzak. Lau urtean gorakada ikaragarria izan da. Alabaina, Edurne Zubia Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoak adierazi digunez, “pobrezia orain hasiko da ugaltzen”. Aurki Gizarte Zerbitzuetako bulegoetara hurbilduko diren herritarren nolakotasu-

na erreparasatu du: batzuk langabezia kobratzen ari dira oraindik baina bukatzen zaizkion ezer gabe geratuko dira. Beste batzuek bi etxebizitza dituzte eta familia horiek automatikoki gizarte laguntzetatik kanpo geratzen dira. Gurasoek edo anai-arrebek mantentzen dituzten familiak ere badira, baina hori ere ez da betiko. Beste mota bateko

familiak ere espero ditu Edurne Zubiak Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan, behar gorria izan arren, orain arte laguntzarik onartu nahi izan ez dutenak, hain zuzen. Herritar bat baino gehiago joan da Udalera, beste arrazoi bat tarteko, egoera ekonomiko itogarria kontatzera. Etxean inolako diru sarrerarik ez zeukan ama batek kontatu zuen, seme-alabentzako aurreztutako 3.000 euro zituela eta horri

tiraka hasi beharko zuela. Laguntza soziala jasotzeko zakuan sartu arren, uko egin zion eskaintzari. Diru-laguntzak ez ezik elikagaiak ere eskaini zaizkie hainbat azpeitiarri, diskrezioz lan egiten duen boluntario talde baten bidez. Askok ez du horra jo nahi. Baina, behar gorrian badira zergatik ez onartu laguntza? “Maila batean (batzuk oparotasun ederrean) bizi izan denaren buruan, beste era bateko herritarrek joaten dira Gizarte Zerbitzuetara edo Caritasera, pobrezian daudenak. Noizbait gutxietsi dituzun horiek doazen tokira joan behar duzula onartzea oso gogorra da”. Porrot egin dutela sentitzen dute, eta besteek zer esango duten beldur dira.

2008tik 2012ra oinarrizko errenta jaso duten azpeitiarren kopurua asko igo bada ere, Edurne Zubiriaren ustez, udazkenetik edo datorren urtetik aurrera laguntza eskatzailak dezente gehiago izango dira. Nolabait esatearren egoera larriak ugaltu egingo dira eta herritarrei gero eta arruntagoa egingo zaie Gizarte Zerbitzuetara jotzea.

Seme-alabak ere deseroso daude

Azpeitiko Udalaren esku-hartze programan gero eta familia gehiago ari da parte hartzen. Seme-alabekin arazoak dituzten gurasoek jotzen dute laguntza eske. “Familia horietako batzuk oso normalizatuak dira, baina zein balore ari gara transmititzen seme-alabei? Eman, eman... materialki eman. Baina zenbat denbora ego-

ten gara haiekin hitz egiten? Zenbat muga ipintzen dizkiegu? Zenbateraino kontrolatzen ditugu?”. Krisi ekonomikoak harreman horiek azaleratu ditu; gurasoak gaizki daude egoerak estututa, seme-alabek nahi adina baliabide material ez dute gurasoek ez daukatelako. Deigarria da Azpeitiko Udalak familientzako ateratako esku-orria. Hauxe

du izenburu: *Daukagunagatik baloratu ordez, garenagatik baloratzen hasteko garaia da*. Familientzako oharretan honakoa irakur dezakegu: “Aurtengo Gabonetan opari bakar bat izatea, nire seme-alabek tableta ez izatea, mugikor zaharrek jarraitzea, etxean Interneti baja ematea, ikasturte amaierako bidaiera ez joatea bezalako erabakiak hartu beharko dira elkarrekin”. Ekonomikoki larri egonda

ere, bigarren mailako “beharrak” uzteko zailtasunak ditu herritar ugari.

Familientzako esku-orrian beste esaldi hau ere ondo argigarria da: “Ingurukoaren aurrean irudia mantendu nahia eta bakoitzak berea egin behar duela pentsatzeak laguntzarik ez eskatzera eta familia isolatzera eramaten gaitzake”. Tabua da ingurukoei ezinean zabiltzala esatea. Galdera bota digu tupustean Zubiak: “Zuri gustatuko al litzaizuke auzokoak galdetzea ea laguntzarik behar al duzun? Ez dut uste horretarako prestaturik gaudenik. Profesionalen aurrean ere nekez hitz egiten dute. Hemen, bi gizarte langile azpeitiarrak dira eta gero eta jende ezagun

gehiago etorriko zaie. Egoera hori saihesten saiatuko gara, bestela gaizki sentituko dira. Gauza bat da esatea etxean laguntza behar duen adinekoa daukazula eta beste bat ez daukazula zer jan”.

Gizarte Zerbitzuetako langileak izanik, kontu tristeak eta gogorrak entzuteko aukera ugari izaten du Zubiak, eta horregatik, baikor izatea gustatzen zaio. Hondoan jota sentitzen diren herritarren panoramari ere, alde ona aurkitu nahi dio: “Gure aurrekoen familia

giroa, baloreak, galdu ditugu, nahiz eta materialki gutxi eduki zioriontsuagoak ziren. Depresioz eta bakardadez inguratuta gaude. Arinkerian bizi izan gara, krisiak beste irakurketa bat egiteko aukera emango digu, gauzak edukitzeaz gain, beste mila gauza daudela ikasiko dugu”.

“Zuri gustatuko al litzaizuke auzokoak galdetzea ea laguntzarik behar al duzun? Ez dut uste horretarako prestaturik gaudenik”

Edurne Zubia

Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuak

“Barneratuta daukate zer den beharrezkoa. 14 urteko alabak Internet behar du etxean, liburutegikoak ez du balio; etxeko kide bakoitzak sakelako bat behar du. Hori dena ezbaian jartzerakoan konturatzen dira egoeraz”

**Fatima Otegi
Caritaseko kidea**

Krisiak gaixotu egiten gaitu

INIGO MELCHOR ARMIÑOK Barakaldoko Zaballa Osasun Zentroan hiru urte daramatza familia mediku. Ez da ohikoa gaixoak etxean bizi duen larrialdi ekonomikoaz zuzenean hitz egitea. Alabaina, sendagileari ez zaio oso zaila egiten zantzuak hartzea. Melchorrek esan digunez, medikuak ez dira morboagatik galdezka ibiltzen, baina adibidez, jakin behar dute gaixoak zergatik ez duen botika hartzen. Gero eta sarriago ari zaio gertatzen gaixoak botika ez hartzea, ordaintzeko dirurik ez daukalako. Ez du uste inolako ondoriorik izango duenik, baina Melchor gaixoaren historia klinikoan honela idazten hasi da: “Halako gaixo ez da sendagaia hartzen ari, ez daukalako eros-teko dirurik”.

Uste izatekoa da langabezia geratu denari, hilaren bukaerara iritsi ezin denari, egoerak osasun arazo psikologikoak edo psikiatrikoak eragingo dizkiola. Baldintza ekonomiko kaskarrek egoera fisikoan ere badute ondorioa, orde. Melchorrek, artatu zuen erai-kuntzako enpresa gizon baten adibidea eman digu. Enpresariak hiru urte zeramatzan familia medikua-rengana joateko beharrik gabe. Melchorrengana joan

zenean enpresako langileak kalera boteak zituen eta bigarren etxebizitza saldua. Lasaigarriak eta antidepresiboak hartzen ari zen. Lehen baino okerrago jaten hasi zen eta kirola egiteko grina gutxi zeukan. Ondorioz, tentsioa igo zitzaion eta kolesterola agertu zitzaion. Arazo kardiobaskularrak izateko atea irekia utzi zuen.

Beste adibide bat ama-alabena da. Gauza larririk izan ez arren, katarroak sarri harrapatzen zituzten. Inigo Melchorrek galdetu zion amari ea neguan berogailua pizten zuten, eta amaren erantzuna: “Argindarra ordaintzeko baldin badaukagu bai, eta bestela ez”. Melchorrek ondoko gogoeta egin du: “Hotzaren eta katarroaren arteko lotura zientifikorik ezin da egin, baina litekeena da esate baterako etxeko beroa ez galtzeko gelak ondo aireztatu gabe edukitzea”.

Badira zeharka eta ezkutuka ibiltzen ez diren gaixoak. Medikua adineko andreari barazki, arrain eta fruta gehiago jateko agintzen ari zitzaion. Hauxe erantzun zion: “Jaki garestienak aipatzen ari zara. Nik dendako saltxitxa arruntenak hartzen ditut, merkeenak direlako”.

Caritasera nor doa?

Gipuzkoako Caritasen egoitza nagusia izan gara, Donostian, eta Jon Telletxeak eta Fatima Otegik hartu gaituzte. Lehenak atzeritarrekin egiten du lan eta bigarrenak bertakoekin eta Espainiako Estatukoekin. Krisi ekonomikoak gogor jo duenean, duela urte batzuk estu-estu ibili eta Caritasen laguntza behar izan zuten horiek itzuli dira. Gizarte laguntzarik gabe edo gutxirekin bizitzea lortu zuten, eta berriro atzera egin dute. Ohituta daude beti krisian bizitzen, baina etsipena eta nekea nabari zaie. Fatima Otegi-aren ustez, “ez da erraza horrela bizitzea, sufritzen ari dira”, eta Jon Telletxeak gaineratu duenez, “etorkizunerako irtenbiderik ez dute ikusten”. “Betikoak” izan dira Caritasera jotzen lehenak beraz, baina jada ez dira bakarrik. Beste maila sozio-ekonomiko bateko herritarrak ere agertu dira, tantaka bada ere. Hemengo jendea da, bizitza eroso izan duena. Deskripzio zehatza egin du Otegik: “Oporrak Eguberritan, Aste Santuan eta udaran; bi etxe; bi-hiru langileko iturgintza enpresa txikia daukana. Ez dio inork deitzen, beraz langileak bota ditu. Hipotekatutako lokala ezin du ordaindu, etxea galdu du lokala abalatzegatik. Ez dauka diru sarrerarik, baina bi etxe dituen ezin du diru-laguntzarik jaso... Oso gogorra da, leku guztietatik daude lotuta”. Ez dute

Caritasera jotzen ezintasun ekonomikoak hasi berritan, ohikoena zor ikaragarriak dituztenean, etsi-etsian, laguntza eskatzea da. Hipoteka ordaindu ezinik dabilenez, interesak biderkatu egiten zaizkie eta Caritas berak ere eskurik bota ezin dienean iristen dira: “Egoera jasanezinetan etortzen dira eta guk oinarritzko eskaeretan baino ezin diegu lagundu. Nola kendu etxearen zorra? Askotan azkeneko momentuan datoz, epaitegietan daudela”. Gizarte Segurantzarekin eta Etxebiderekkin egoerak arintzen saiatzen dira.

Azpeitiarrak ez dira laguntza eskatzeko lotsa diren bakarrik. Jon Telletxearen iritziz, “hau ez da Madril edo Bartzelona, denok ezagutzen dugu elkar. Herriko parrokietara edo hona (egoitza nagusira) etortzea kosta egin zaio jendeari. Kasu larrienak datoz oraingoz”. Caritas alkoholikoekin, behartsuekin eta jantoki sozialekin lotzen du jendeak eta bizitza maila eroso izan duenak honela dio: “Ni Caritasera? Ez naiz behartsua” edo “Orain arte nik eman dizkiot diru-laguntzak Caritasi!”. Ataka estuan bai, baina batzuk etxeko lanak egin gabe joaten dira Caritasera. Ez beti kudeatzaile txarrak direlako, baizik eta etxeko lanak egiten hasteak egoera onartzea esan nahi duelako. Telletxeak ikusitakoa kontatu digu: “Bizi maila oso onean zenbat urtez bizi izan

diren pentsatzen duzu, haiek orain ari dira konturatzen ezin dutela Internet eduki, ezin dutela sakelakoa mantendu”. Eta Fatima Otegi segi du: “Barneratuta daukate zer den beharrezkoa. 14 urteko alabak Internet behar du etxean, liburutegikoak ez du balio; etxeko kide bakoitzak sakelako bat behar du, umeak paga behar du. Hori dena ezbaian jartzerakoan konturatzen dira egoeraz”.

Ezin da gaiaz hitz egin

Azpeitiko Udaleko Edurne Zubia langilearen ildo beretik jardun dute Otegi eta Telletxeak, modu onean bizitako familien hondoratzea tabua da, sufritzen ari denak ez du bistaratu nahi eta aldamenekoak sarri ez daki nondik jo. Fatima Otegi konparazioa egin digu: “Caritasen boluntarioak eta herritarren diru-laguntzak bikoiztu egin dira, baina etxepean obrak egin eta langabezian dagoenak bere zatia ordaindu ez duelako bizilagunak gai gara epaitegira jotzeko. ‘200 euroren partez 50 ipintzerik ba al duzu?’. Ez gara horrelako akordioetara

“Caritasen boluntarioak eta herritarren diru-laguntzak bikoiztu egin dira, baina etxepean obrak egin eta langabezian dagoenak bere zatia ordaindu ez duelako bizilagunak gai gara epaitegira jotzeko”

**Fatima Otegi
Caritaseko kidea**

iristen. Solidarioak gara, baina etxepekoarekin...”. Parkeko adibidea da bestea. Gurasoek badakite alboko gurasoek haurra hurrengo eguneko eskola bidaiara bidaltzeko dirurik ez dutela. Laguntzeko prest daudenak ez dira ezer esatera ausartzen eta premian dagoena hitz egiteko lotsaz dago.

Barakaldon, Berri Otxoak elkarte

Ainhoa Irazabal barakaldarra Berri Otxoak plataformako kidea da. Bazterketa sozialaren eta eskubide sozialen alde egiten du elkarteak. Irazabalek lau urte daramatza informazio bulegoan beharrean diren herritarrei diru-laguntzak kudeatzen laguntzen. Bi

motako herritarrak datozkio azken aldian: langabezian eta inolako laguntzarik gabe, 300-400 euroko pentsioa duen ama zaharrek bizi diren seme-alabak, batetik, eta bestetik, bikote gazteak umeekin, etxebizitzaren hipoteka bizkarrean dutela. Azken horiek, bi soldata zituztenean moldatzen ziren, baina bakarrarekin hipoteka ordaindu,



Beti dago lehen aldi bat edozertarako...

Bizikleta gaineko lehen abenturarako. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai; erosketa supermerkatua joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerarako balio du.

eroski.es

EROSKI online
zurekin



Argazkian Arabako Elikagai Bankua. Larrialdi ekonomikoan dagoen askori eskaini zaio elikagaiak honela eskuratzea, baina batzuk lotsaz ez dira toki horietara hurbiltzen.

jan eta haurrak haztea ezinezkoa zaie. Senideak jada ez dira laguntzeko gai, nork bere burua mantetzen nahiko lan du. Barakaldok krisi ekonomiko latzak bizi izan ditu eta bizirautea nekeza egiten zaion sektore zabalagoa dago herri horretan. Hala ere, Irazabalek orduak egiten dituen informazio gunera maila sozio-ekonomiko hobeagoko jendea azaltzen hasita dago: “Etxea galdu dutenak etorri dira informazio bila. Kalean ikusten dituzu eta ezin duzu imajinatu horiei gertatu zaizenik, arropagatik, hitz egiteko moduagatik, jende prestatua delako... Denoi gerta dakiguke, behekoari bakarrik ez. Sistema nola dagoen ikusita inor ez dago salbu”.

Aurpegia emateko ausardiarik ez

Etxea galtzeko zorian direnei, Berri Otxoak elkarteak kideek esan diete babestuko dituztela, haien egoera publikoki salatzen lagunduko dietela, baina aurpegia beraiek eman behar dutela. Askok ezetz esan diete, dauden egoeraren egonda auzokoei, lagunek eta ezagunek jakiterik ez dute nahi. “Zorritzarrez, gaur egun borrokatzen ez duenak ez dauka zer

eginik. Telebista piztu besterik ez dago, aurpegia ematen ari denak lortzen du zerbait. Etxean zokoratuta geratzen bazara ez daukazu ezer, hori da bankuek eta erakundeek nahi dutena, zaratarik ez ateratzea. Herriar guztiek laguntzak berdin jasotzeko aukera izan beharko lukete, baina ez da horrela gertatzen”.

Ainhua Irazabalen ustez elkarteak biltzen ari dira, baina herritar solteak ez: “Berde gaude, otsoari belarriak, buztana, eta dena ikusi arte ez dut uste hau mugituko denik”

Irazabalen ustez, etxe kale-ratzeen kontrako elkarteak, lan duinaren aldekoak, langabe-tuen taldeak, arrazismoaren kontrakoak... elkartzeko ari dira, baina herritar solteen arteko arrimurik ez du nabari: “Berde gaude, otsoari belarriak, buztana, eta dena ikusi arte ez dut uste hau mugituko denik”. Informazio gunera laguntza bila joan zen gaztea

etorri zaio gogora. Langabezian dago, bikotekidea eta haurra ditu. Duela urte batzuk, hura ere borrokatzera kalera ateratzen omen zen, baina Irazabali onartu zion, gehiengoak bezala, orain tabernan hitz egiten duela bere itolarriaz eta gertatzen ari denaz. Aspaldi ez dela manifestazioren batera joan. ■



EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 22. JAIA

HAZIAK INDARTU



**BETAGARRI
ASTALAPO
PIRRITX, PORROTX ETA
MARIMOTOTS
IRRIEN KLUBA GUNEA
KALE ANTZERKIA
PONIAK
GAZTE-GUNEA
BAZKARIA**

....

MURGIA - EKAINAK

2

LAGUNTZAILEA:

 **murgia**

info+
www.ehige-jaia.org

ehi
gurasoen elkarte

«Zer ezin dugun baino, zer egin dezakegun pentsatu behar dugu»

Nahiz eta bizitzan kolpe latzak jasotakoa izan, Antxon Arza betiko gazte alai eta baikorra da. Magnetikoa. Berarekin solas egitean, barne-bateria energia positiboz kargatzen zaizula nabari duzu.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Kirolzalea txikitatik?

Bai. Gurasoekin Iruñerriko mendietara joaten hasi ginen, igande guztietako ohitura zen. Gero igeri egiten hasi nintzen. Konpetizioan aritu nintzen bost bat urtez, aspertu arte. Orduan fondoko eskia eta eskalada ezagutu eta horiek egiten hasi nintzen oso gustura. Aldi berean mendiko bizikletan eta espeleologian aritzen nintzen. 1984an Himalaiara joan eta han tifusa harrapatu nuen. Itzulita-koan besoetako indarra berreskuratzeko hasi nintzen piraguan ibiltzen. Atarrabian, Ultzama eta Arga ugaldeak elkartzen diren tokian, sartu nintzen lehen aldiz ibaian.

Ordura arte lanean nenbilen gurasoekin Onena enpresan espezieak eta txokolatea saltzen, komertzial modura. Baina nik kirolaren inguruan egin nahi nuen lan eta enpresa munduan nituen ezagupenak baliatu nituen lagun batzuekin negozio propioa zabaltzeko. 1987an Urkan kayak sortu genuen piraguak saltzeko, eta hor jarraitzen dugu. Urkan hitzak euskaraz “uraren bila” esan nahi omen du.

Piraguak saldu eta egin ere bai?

Guretzat eta lagunentzat poliesterreko piragua batzuk egin genituen San Andres errota honetan bertan, hemen Iruña Kayak elkar-teren egoitza zegoelako, eraikina zaharberritu baino lehen. Kayak bat erosi eta hura kopiatu genuen. Erraza zen, baina oso zikina eta toxikoa. Momentu hartan polietilenoazko piraguak hasi ziren fabrikatzen. Horiek ez ziren apurtzen eta prezioak ere interesgarriak

ziren. Frantziatik eta batez ere Alemaniatik hasi ginen ekartzen eta Arrotxapeako etxabe batean zabaltu genuen denda. Ideia zen gure negozioetik bizitzea, aldi berean kirola eginez. Beraz, hilabeteen behin-edo, Alemaniatik gure autoetan piraguak ekartzen genituen eta larunbat eta igandetan ikastaroak ematen genituen. Asteazkenean zehar mendian eta piraguetan ibiltzen ginen. Gerora ikastaroak utzi genituen elkarte eta jende gehiago hasi zelako halakoak antolatzen eta gu materialaren salmentan zentratu ginen. 164 modelo desberdin ditugu egun, eta horretaz gain txalekoak, arraunak... denera 2.000 produktu inguru. Oso lanbide polita da. Zure lana maitatzea oso gauza ederra da.

NORTASUN AGIRIA

Antxon Arza kirolaria eta enpresaria da, baina batez ere, abenturazalea. 1962ko apirilaren 2an Iruñean jaioa. Gazte zelarik etxeko negozioan gurasoekin espezieak eta txokolatea saltzeari utzi eta bere kirolzaletasuna bizibide bihurtu zuen piraguak salduz. Pirinioetako errekek jaitsi zituzten aurreneko gazte ero koadrila horretako kidea da. *Al filo de lo imposible* telebista saio ezagunean parte hartu zuen hamar urtez, harik eta 2000. urtean Venezuelako Yunuari ibaian kayak batean 15 metrotik behera jauzi eta bi orno hautsi zituen arte. Horren ondorioz gurpil-aulkian ibiltzen da, baita eskiatzen, igerian, mendian barna quad baten gainean, eta han eta hemen hamaika hitzaldi ematen ditu enpresa alorreko profesionalen aurrean.



Hemen, Ultzama eta Arga ibaiak elkartzen diren tokian, sartu zen Antxon lehenbiziko aldiz piragua batean.

ANTXON ARZA

Zenbat balio du piragua batek?

Badira 300 eurotik 1.800era artekoak. Batekoak, bikoak eta baita hirukoak izan daitezke.

Asko aldatu da Arga ibaia ordutik hona?

Bai. Orduan oso-oso zikina zegoen. Fabriketako isuri guztiak errekarra joaten ziren zuzeanean. Orain araztegitik pasatzen da dena, baina orduan agian berrehun tokitatik ikusten zen ur zikina ateratzen. Oso utzita zegoen. Ez zen ezer konpontzen eta dena plastikoz bete zegoen. Gaur egun barboak daude nonahi eta batzuetan amuarrainak ere ikusten dira.

Aitzindariak izan zireten ur azkarretako kiroletan.

Mendiko mentalitatea, hau da, bide berriak jorrazteko grina, ibaira eraman genuen. Ordura arte piraguan ibiltzen zen jendea konpetizioetan soilik aritzen zen. Gu hasi ginen ibai berriak jaisten, Pirinioak deskubritzen. Elkartu genituen mendian eta eskaladan erabiltzen genituen teknikak piraguarekin. Ibai asko ezagutu genituen. Abenturazale frantsek eta alemanek noiz edo noiz zerbait egiten zuten, baina oso gutxi. Ni Alpeetan raftingak egiten aritu nintzen monitore. Garai hartan hemen oso gauza berriak ziren. Modu honetara ezagutu gintuzten telebistakoek eta haiekin hasi ginen saioak egiten.

Al filo de lo imposible saio mitikoan hamabi urte. Nola sartu zinen abentura horretan?

Kasualitatez. Hemengo neska bat, Miriam García eskalatzaila, haiekin saio bat egitera joan zen eta ondoren proposatu zioten beste bat egitea arroilen jaitzieraren inguruan. Horretarako beste bi lagun joan ginen laguntzera eta modu horretan ezagutu nituen. Adierazi nien zer egiten genuen Pirinioetan eta asko gustatu zitzaizenez, 1988an hasi ginen saioak egiten. Lau edo bost ordu grabatzen zituzten, 16 milimetrotan, ordu erdiko saioa egiteko. Hilabeteetako lana ordu erdiko saio baterako. Ur bizien inguruko saioak egin genituen Txilen, Pakistanen, Marokon, Zeelanda Berriko Kaituma ibaian, Afrikako Zanzibez, Asiako Indon... Hamaika tokitan. Ur azkarretako saio guztietan parte hartu nuen bai piraguan baita arroilen jaitzieretan ere. Batzuetan protagonista, bestetan laguntzaile moduan kamerak eramaten edo sokarekin jaitzierak antolatzen. Urtean bi-hiru hilabete ematen nituen horretan.

2000. urtean istripu larria izan zenuen Venezuelan.

Espedizio komertzial bat zen. Hemengo gidak, hangoak eta 25 gazte, bidaia honetan parte hartzeko aukera sari bezala irabazita zutenak. Denera 50 bat ginen. Yunque ibaiko

Negarra

"Beti badituzu zure momentuak negar egiteko. Nik Scorpions taldearen musika jartzen dut autoan negar egiteko. Horrela lasaitzen naiz".

ur-jauzi batean 15 metrotik salto eginda ur azalaren kontra erori nintzen, piraguaren sabel osoarekin bete-beteaz joz. Porlana bezain gogorra zegoen ur azala. Gainera, zoritxarrez, ur gutxi zegoen. Ur asko jaisten denean urak berak oxigenoa atxikitzen du barnean eta horrek bigundu egiten du ur azala. Baina ez zen hori gertatu eta, ondorioz, bizkarrezurra konprimitu eta hautsi egin zitzaidan. Gaitz erdi espezialista handi bat zegoela eta berak antolatuta zuela erreskatea. Helikopteroz ospitale txiki batera eraman ninduten eta han ezin zidatenez ezer egin, Caracasera bidali ninduten, handik 1.300 kilometroa. Orno bat erabat leherturik neukan eta beste bat nahiko gaizki. Oso erreskate ona egin zidaten eta horri esker hankak mugitzen ahal ditut pixka-pixka bat.

Une horretan zer pentsatu zenuen?

Hautsi nintzela sentitu nuen. Oinaze ikaragarriaz gain, hankak deskonektatuak nituela nabari nuen. Bi patata zaku bezala nituen. Segituan Adolonta injektagarria jarri nuen, mina apaltzeko. Beti eskura eramaten dut botikin txiki bat halako botika gogorrekin.

Bizkarrezurra bai baina bizitza ez zaizu hautsi.

Bai, aurrera egin behar beti. Baina halako istripuak izan ditugun gehienok egiten dugu hori, modu batez edo bestez. Duela 50 urte bizkarra haustea oso desberdina zen ez zegoelako aulki elektrikorik edo auto berezirik, kaleak koskaz beteak zeudelako, eta eskiatzea edo mendira joatea, adibidez, pentsaezina zelako. Jendea etxean gelditzen zen eta hila-bete gutxitan hil, barneko organoak ere gelditu egiten zirelako. Oso gogorra izan zen hasieran, baina ezin zara atzean gelditu. Zoriontsua naiz berriz bizitzeko aukera izan dudalako, berriz ere familiaz, lagunez eta naturaz gozatzeko aukera dudalako.

Ilbiltzeko aukerarik izan dezakezu?

Pixka bat ibiltzen naiz bastoiekin edo lagun laguntzarekin, baina oraingoz besterik ez. Lesio medularrak sendatzeko modurik ez dago. Gaur egun ikerlariak hurbil dabilta, baina oraindik ez dago erremediorik, besteak beste, katolikoek ez dutelako ama zelularik erabili nahi. Aznarrek Espainian eta Bushen Estatu Batuetan halako ikerketak geldiarazi zituzten erabat. Ziur nago horiek aurrera joan izan balira, nik orain ilbiltzeko ahalmena izanen nukeela. Horregatik jende askori esaten diot: katolikoek lur jota utzi gaituzue.

Beste zartako handi bat jaso zenuen duela urte eta erdi Adi, 15 urteko semea, bizikletan zihola auto batek harrapatuta hil zitzaizuenean.

Hori da gogorrena. Zauri hori ez dago ixteko modurik eta hala izanen da beti. Aulkian ibili behar izatea gogorra da, baina ez da ezer bestearekin alderatuta. Agian batzuetan pentsatzen duzu “nola aulki batean nagoen, nik jada ordaindu dut bizitza honetan. Ez dakit zer, baina ordaindu dut”. Eta gero konturatzen zara ezetz. Etortzen ahal zaizula beste ezbehar handiago bat, aurrekoa txiki uzten duena. Eta hala da. Une horietan familia eta lagunak oso garrantzitsuak dira. Aurrera jarraitu eta eutsi. Gelditzen bazara, utzikeriak harrapatu egiten zaitu.

Kirola egiteak, zentzu horretan, laguntzen dizu?

Egunero joaten naiz igerilekura eta horrek laguntzen dit sasoi onean mantentzen eta burua lasaitzen, baina ez naiz fanatikoa. Ez dut kirolarekiko obsesiorik. Mendira joan eta eguraldi txarra egiten badu, lasai-lasai eman dezaket bizpahiru egun zakuan sartuta.

Obsesiorik ez, baina diziiplina behar da horretarako.

Bai. Gainera igeri egitea oso aspergarria da. Ez duzu inorekin hitz egiten, baldosinak bakarrik ikusten dituzu denbora guztian... Niretzako kirola egiteak duen onena da lagunekin aritzea, taldea, giroa, natura, mendian ibiltzea... baina igeri egiteak on egiten dit eta horregatik egiten dut.

Gero eta lehia handiagoa sumatzen al da kirolean?

Azken urte hauetan bai ikusten dela lehiakortasuna sartzen ari dela gero eta gehiago. Orain dela gutxi borrokak eta harrikadak izan dira sherpekin Everest mendian. Konpetizioa ulertzen nuen gazte nintzenean. Orain Zarautz-Getaria igeriketa txapelketa egiten dugu, baina aitzakia delako bildots bat jokoan jartzeko eta urte osoan entrenatzeko. Garrantzitsuena egunero kirola egitea da, baina batzuek ez dute ulertzen jolastea jolasteagatik, aritzea aritzeagatik. Hori nortasunarekin doa.



Baina, aldi berean, kirolzale gero eta gehiago ikusten da toki guztietan.

Zaletasun handia dago. Lehen adibidez, jende gaztea soilik zebilen ur azkarren bila, eta orain familiak hasi dira halako jarduerak egiten. Gure bezeroen profila asko aldatu da. Alema-



Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

AZKEN HITZA

Adi

"Adiren lagunentzat ere oso gogorra izan da. Semea jende askoren arteko lotura zen, gauza asko egiten zuelako: irristaketa, eskia, pira-gua... eta mundu desberdinetako lagun aunitz elkartzen zituen. 15 urterekin lagun bat galtzea oso gogorra da mundua desegiten zaizulako. Adiren lagunekin eta haien gurasoekin egoten naiz maiz eta argi ikusten dut hori. Gaztetxo hauetako batzuek eta Saioak, Adiren arreba bizkiak, ikasteko zailtasunak dituzte orain, adibidez. Halako egoera gogorretan burua itxi bezala egiten da eta kosta egiten da gauzak ikastea. Erabateko estresa sortzen da. Nahi dudak bakarra da nire alabak, Ara eta Saioa, pertsona eta adiskide onak izan daitezela eta goza dezatela egiten dituzten gauzekin, nik egiten dudak bezala".



nian edo Zeelanda Berrian hori ikaragarria da. Oso hedatua dago gizartean eta kulturarekin eta heziketarekin lotua dago. Zenbat eta kultura handiagoa, orduan eta kirol praktika handiagoa. Asko aldatu da hau hemen azken urteotan eta gehiago aldatu behar du.

Berriki telebistara itzuli zara *Viviendo al filo con...* elkarrizketa saioarekin.

Bai, 2011n eta 2012an. Hamabi saiotan *Al filo de lo imposible*-n aspaldian parte hartutako hainbat abenturazaleri egin dizkiegu elkarrizketak, orain zertan dabilzan ikusteko. Ni izan nintzen lehen elkarrizketatua eta han gelditu nintzen aurkezle edo gidari. Carlos Soria, Eduard Admetlla urpekaria egun 88 urte dituen, Josune Bereziartu eskalatzailea, Laureano Casado hegalaria, Adolfo Eraso eta Carmen Domínguez Glackma elkarteko glazialogoak, Cecilia Buil, Iker Carreras... Denek segitzen dute aktibo. Oso elkarrizketa bereziak izan dira eta bukaeran haiekin beti egiten nuen aktibitate txiki bat.

Jarraitzeko posibilitaterik baduzue?

Al filo-rekin alderatuta askoz ere formula merkeagoa izanik ere, ekonomikoki oso zaila

da. Arduradun berriek oraingoz ez dute proiektua onartu eta ez dakigu jarraipenik izanen duen ala ez.

Hitzaldiak ere ematen dituzu han-hemenka.

Bai. Horietan nire esperientziez hitz egiten dut enpresari eta kirolari bezala. Bi arloetan, bizitzan bezala, oro har, oso garrantzitsua da zer egin nahi duzun jakitea eta hori lortzeko taldean lan egitea. Ilusioa, taldeko lana, inno-bazioa, komunikazioa, nola aurre egin une zailei... Elementu horiez hitz egiten dut oso modu pertsonalean eta oso hunkigarria suertatzen da. Nahiz eta mugak izan, gauza asko egiteko gai gara. Zer ezin dugun baino, zer egin dezakegun pentsatu behar dugu. Etxeko sofán telebistari begira geldituta ez dago aurrera egiterik. Hori da entzuleei transmititu nahi diedan ideia nagusia.


Etorkizunean zer egiteko gogoia duzu?

Lasai bizi nahi dut. Gustatuko litzaidake munduan barna bidaia luze bat egitea quad-arekin edo auto zahar batekin. Ez dakit nora joan ezta nondik hasi ere. Kirola niretzat aitzakia da mundua ezagutzeko. ■



Joseba B. Lenoir · Gasteiz Big Band · The Lucilles · Norman GAZTELUPEKO HOTSAK www.hotsak.com			Juan Ortiz Trio · Broken Brothers Brass Band · Chris Kase · Iñaki Rodriguez · Ander Garcia · Los Wachisneis · Javier Lopez Jaso & Marcelo Estrich Quartet · Rafael Santana Trio		
ERRABAL J A Z Z					

www.argia.com/multimedia



Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarriketak, erreportajeak, kultura...

Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.

Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.

Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.

Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.

Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.

Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpituluekin.

Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.

Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

«Desobedientziaren bidea ere jorratu beharko dugu hezkuntzan»

Murgian ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren jai atarian, hezkuntza arloko murrizketen aurka eta LOMCE lege-proposamenaren kontra borrokan diharduten bi elkartetako ordezkariekin bildu gara, Hezkuntzan Geu Eragileko Edu Zabala eta Denon Hezkuntzako Aitor Otañorekin. Irakasleak dira biak, Bigarren Hezkuntzan dabil Zabala, Irungo Txingudi Ikastolan, eta Lehen Hezkuntzan Otaño, Bidegoian Herri Eskolan.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Zein beharrek bultzatuta sortu ziren elkarteok eta zein jendeak osatzen dituzue? Irakasleei baino ez daude zuzenduta ala talde irekiak dira?

Edu Zabala: Hezkuntzan Geu Eragile 2011ko abenduan sortu zen. Hiru sindikatu abertzaleek “Murrizketarik ez!” sinadura bilketa abiatu zuten, gure ikastolan erantzun polita izan zuen ekimenak eta sindikatuak berriz deitzera itxaron beharrean, gure burua antolatzen hastea erabaki genuen, erreferente gisa ikastetxea eta bertako eragile guztiak hartuz: gurasoak, irakasleak eta ikastolako langileak —gure kasuan ikasleak adin txikikoak dira—. Hainbat ekimen eta gogoeta plazaratzen hasi ginen eta bidean Denon Hezkuntza kolektiboarekin egin genuen topo.

Aitor Otaño: Irakasle ordezkariak informazioa trukatzeko Facebooken sortutako talde batetik dator Denon Hezkuntza, urrats bat gehiago eman eta murrizketen eta LOMCEn kontra egiteko nahiak batuta, ikastetxeetan irakasleen aldetik nolabaiteko mugimendu falta zegoela ikusten baikenuen eta sindikatuetatik ere aldendu samar daude irakasleak. Jendea ez dago pozik sindikatuak orain arte egindako lanarekin; gu ez goaz haien kontra eta ez gara haien alternatiba, sindikatuarekin lankidetzan aritu nahi dugu, baina proiektu propio moduan, eskoletan ekimenak aktibatuz eta dinamizatuz, kexetatik harago proposamenak plazaratuz.

E.Z.: Talde irekia izanik funtzionarioak, bitartekoak, ordezkariak, jangelako langileak, garraiokoak... gaude, ikuspegi anitzekin,

baina guk esaten duguna da erronka handiegia dela bakoitza bere aldetik ibiltzeko eta bultzatzen duguna ez da irakasleen aldarrikapen bat soilik, hezkuntzaren kontrako erasoan denak inplikatzeko baizik, tartean gurasoak, euren seme-alabek jasango dituztelako ondorioak. Hasiera-hasieratik harremana izan dugu gurasoekin eta 16 urtetik gorako ikasle kolektiboarekin, konfiantza sortzeko, eta azaltzeko nahi duguna ez dela gure lan-baldintzez hitz egitea soilik, baizik osotasunean hezkuntzaz eztabaidatzea, eta horretarako haien beharra dugula eta haiek gurea. Guk ditugun proposamenak eta alternatibak helarazi nahi ditugu, baina bueltan ere jaso nahi ditugu.

Sigla ezberdineko jendea gaude, eta batzuetan sigla bat jartzen duzunean mahai gainean edo sindikatu batek egiten duenean deialdia, automatikoki besteetakoek ez dute bat egiten eta gurean natural atera da hainbat sigletako lagunak bildu ahal izatea oinarritzko gauzen alde borrokatzeko.

Eragile guztien inplikazioaz ari garela, eskola-kontseiluaren eragina ezabatu eta zuzendariari eman nahi dio boterea LOMCE erreformak.

A.O.: Bai, gaur egun zuzendariaren gainetik dago organo gorena, eta erreformarekin alderantziz izango litzateke: zuzendariak izango luke azken hitza gauza askotan eta zuzendaria ez luke orain arte bezala klausurak aukeratzeko, klausurak bozen erdia izango luke eta beste erdia kanpotik letorke.

“Gurasoak erabaki dezake seme-alaba eskolara ez bidaltzea errebalida frogaren egunean, eta boikot inportantea litzateke, froga horietan oinarrituko baita LOMCE”

Edu Zabala, Hezkuntzan Geu Eragile



E.Z.: Langileria kudeatzeko ahalmena ere izango luke zuzendariak, ikastetxe publikora gestio pribatua eramanez. Pribatutasun kontzeptua handik eta hemendik poliki-poliki sartzea da asmoa eta bertako eragileei protagonismoa kentzea, arriskutsua da hori.

“Hezkuntzan Geu Eragile”. Zein modutan izan nahi duzue eragile?

E.Z.: Gu geu izan behar gara eragile, inor ez da etorriko hau salbatzera. Erraza da sindikatuak kritikatzera, “ez dira etortzen”, “betiko eskemarekin datoz”... eta halakoekin, baina zu zeu bihurtzen zarenean eragile, ikastetxe-koak bertakoak, fardela norberak hartzen du bere gain, ez etorri elkarteari galdezka zer egingo dugun guk, ardatz beraren inguruan ikastetxeak berak modu autonomoan ekitea da helburua. Hori bai, gutxieneko koordinazio baten barruan. Denbora eta inplikazioa eskatzen du horrek guztiak.

“Denon Hezkuntza”. Ez da denontzako hezkuntza bermatuko LOMCEekin?

A.O.: Denok dugu eskubidea hezkuntza eredu egokia defendatzeko eta horren alde egiteko, talde irekia eta parte-hartzailea gara.

E.Z.: Eta halaber, ildo berriek erakusten dute hezkuntza elitista nahi dutela, batzuentzako hezkuntza, eta “denon” horrekin aldarrikatu nahi dugu guztiok dugula hezkuntza jasotzeko eskubidea, faktore ekonomikoek baldintzatuz gabe.

Hezkuntzaren publikotasuna defendatu dute Zabaletak (ezkerrean) eta Otañok, denok hezkuntza jasotzeko dugun eskubidea bermatzen duen heinean. “Hortik aurrera hezkuntza publikoa zer da, instituzionala ala herritartasunetik zedarritzen dena?”.

“Administratziotik ongi neurtu dute: irakaslea lanez zamatuta, eta denbora gutxi dauka pentsatzeko eta eskolatik kanpo ekimenak egiteko”

Aitor Otaño, Denon Hezkuntza

Murrizketei eta LOMCE lege-proposamenari aurre egiteko, zein bide ari zarete egiten maila sozialean, judizialen, politikoa...?

E.Z.: Arazoa bistaratzeko, inplikazioa lortzeko eta gero eta jende gehiago mobilizatzeko helburuz, hainbat ekimen ditugu martxan: hala nola, “LOMCEri ez” sinadura bilketa, sinadura horiek gero Delegaritzara eramateko; kamiseta beltzekin ateratzen gara astean behin eta eskolak ere kamiseta hauekin ematen ditugu; egun jakinetan (inauteriak, Korrika Eguna, ikastetxeen jaiak...) kontzentrazioak egin ditugu eta Bizikleta Martxa eta Elkartasun Eguna antolatzen ari gara —irakasleon soldataren zati bat herriko kolektibo kaltetuenei bideratuko diegu Elkartasun Egunean—. Topaketa informatiboak egiten ari gara eskualdeka —oraingoz Gipuzkoan batik bat—, asanblea modukoak, informazioa ahalik eta gehien eta ahalik eta gehienei zabaltzeko, jende berria ezagutzeko, proposamenak elkartrukatzeko... Blogetan ere zabaltzen dugu informazioa eta sare sozialez baliatzen gara. Maila politikoan, herri bakoitzeko udaltan “LOMCEri ez” mozioak planteatu ditugu eta dagoe-neko Donostia, Hernani,

Oiartzun edota Irungo udalbatzek onartu dute —PPren kontrako bozarekin—. Aipatu duzun plano judiziala handi geratzen zaigu, pausoz pauso goaz eta gainerako konplizitatea lortu behar dugu, epaitegiak ez dira gure bidea, ikastetxea, bertako eragileak eta ekimen egingarriak ditugu oinarri. Azkenik, desobedientzia-



HGE-K UTZIAK

ren bidea ere jorratu beharko dugu. Finean, inposaketa hauen aurrean ditugun tresnak erabiliko ditugu, bestela dekretu bidez etorriko da dena eta ezin diogu amen esan Madrilek agindutakoari, dirudienez Jaurilaritzak egin nahi duen moduan.

Hain juxtu, desobedientzia zibila pil-pilean dago orain. Ekintza zehatzetan nola islatzen da desobedientzia hezkuntzaren arloan?

E.Z.: Eztabaida sendoa eskatzen du gaiak, baina gurera egokituta balio dezaketen adibideak badira. Sevillan diagnostiko-frogak alde aurretik filtratu dituzte eta balioa galdu dute. Edo guraso batek lehengoan komentatzen zuen aurrerantzean funtsezkoak izango direla haiek, irakasleak nahiko lotuta egon daitezkeelako, baina gurasoak erabaki dezake seme-alaba eskolara ez bidaltzea errebalida frogaren egunean. Eta gurasoen konplizitatearekin lortzen badugu ebaluazio diagnostikoari boikota egitea, oso inportantea izango da, errebalida frog horietan oinarrituko baita LOMCE. Curriculumaren aurkako desobedientzian, Ingalaterran administrazioak Historia Garaiak ikasgaiko edukiak aldatu zituenean, Batxilergoko hainbat irakasle erabaki zuten, Katedra Eskubidearen izenean, eduki horiek ez ematea. Ez dakigu horrek gero zigor administratiboak ekarriko dituen, Ikuskaritza gerturatuko den eta abar, baina ziur gaude leku askotan halakoak egin direla eta informazioa biltzea eta jasotzea da gakoa. Formulak badaude, baina jakin behar da zein indar dugun eta nolako ondorioak izan ditzaketen; ez dakigu noraino eman dezaketen.

Ikastetxeen autonomia aipatu duzue, borroka beraren barruan dinamika propioak sortzeko. Sei puntuko manifestuak batzen zaituzte eta lehenengo puntuaren arabera, harro zaudete egungo euskal hezkuntza publikoaz. Zein eredu defendatzen duzue?

E.Z.: Publikoa izan behar duen hezkuntza sistema euskaldun eta laikoaren alde egiten dugu. Publikotasuna defendatzen dugu horrek ber-

ludietan, bi elkarteek deituta otsailean Donostian egindako protesta. "Hasiera-hasieratik harremana izan dugu gurasoekin eta ikasleekin, konfiantza sortzeko, eta azaltzeko nahi duguna ez dela gure lan-baldintzez hitz egitea soilik, baizik osotasunean hezkuntzaz eztabaidatzea, eta horretarako haien beharra dugula eta haiek gurea".

matu behar duen heinean denok, aukera berdinekin, hezkuntza jasotzeko dugun eskubidea. Hortik aurrera hezkuntza publikoa zer da, instituzionala ala herritartasunetik zedarritzen dena? Bigarrenaren aldekoak gara gu, bestela adibidez Nafarroako eredia publikoa delako, baina instituzioek egurra ematen diote euskari eta euskal kulturari.

Manifestuan hezkuntza komunitateko langileen kontrako desprestigiatze kanpaina salatzaren duzue, "pribatizazioaren mesedetan".

E.Z.: Manifestua sortu genuenean, Patxi Lópezen garaiko Jaurilaritzak kaleratu zuen gure kolektiboan absentismo maila handia zegoela eta hori esanik, iritzi publikoa prestatu ondoren, bajen dekretua etorri zen eta ordezkioa bidali arteko egun kopurua handitu zuten. Halako kanpaineekin, irakasleak eta hezkuntza desprestigiatzea bilatzen dute, informazio hori ez delako %100 egia.

A.O.: Bai, desprestigiatze kanpainak langile publiko guztiengana zabaldu dituzte jada eta hedabideetan herritarrei galdetzen diete ea uste duten langile publikoek lanordua gutxiago dituztela, soldata jaitsi beharko al litzaiekeen... Gainera, absentismo datuak desitxuratu egin dira, administrazio publiko osoko datuen batez bestekoa emanez, eta ez hezkuntza eremuari dagozkionak bakarrik.

Lan-baldintzen murriztea ere nabarmentzen du zuen manifestuak. Nola daude ratioak hemen, irakaskuntza pertsonalizatuaz hitz egin daiteke ala masifikatzen ari dira gelak? Baliabideak falta zaizkizue?

E.Z.: Ez dituzte ratioak igo baina ez dituzte ikasle errepikatzaileak kontuan hartu eta 25 ikasle baino gehiagoko gelak ugaritu egin dira, nahiz eta topea berez 25 ikaslekoa den EAEn eta 30ekoa Nafarroan. Datozen urteetan okertu egingo da egoera, lehenengo mailak topera datozelako. Horrez gain, gure soldatetan murrizketak eta izozteak ezarri dituzte eta lan karga handitu digute, burokrazia pila bat tarteko.

A.O.: Administrazioetik hori ere ongi neurtu dutela uste dut. Irakaslea lanez zamatuta dute, pentsatzeko denbora gutxi dauka eta eskolatik kanpo ekimenak egiteko ere nekatuta dago.

E.Z.: Bai, eta bajak hartzea gero eta konplikatuagoa dela gehituta, ebaluazio bukaerara

oso erreta iristen da jendea. Lanorduen barruan gai hauek elkarrekin hitz egiteko denbora eta aukera desagertzen ari da, karga burokratikoek eragozten dute bestelako kontuetan sartzeari, baita batzuetan eskola behar den bezala prestatzea ere. Ez gara iristen jartzen dizkiguten erronka guztietara, baliabide gehiago behar ditugu, eta ordezkariak ondo betetzea.

A.O.: Ordezkariak sumatu dira murrizketak eta ikastetxeko irakasleek bete behar dituzte lankidearen bajako lehenengo egunak. Eta funtzionamendu gastuetarako %30-40ko murrizketa ekonomikoa izan dute hainbat ikastetxek; gutxien gastatu duenari ez zaio dirurik emango. Edo Eskola 2.0 bezalako adibideak ditugu: ordenagailuak sartu zituzten, baina irakasleak urte horretan baino ez zituzten formatu, hurrengo urteko irakasleak ez, eta Hirulekun proiektuarekin berdinean, proiektu berria sartzen da baina ez dago formakuntzarik ezta prestatutako materialik ere.

“Eraso honek ez du krisiaren arazoa konpontzeko eta aitzakia besterik ez da, gizarte solidario eta soziala birrintzeko” ere badio manifestuak. Zer nolako gizarte eredu bultzatu nahi du LOMCEk?

E.Z.: Neoliberalak, elitistak eta baztertzailerak da legea, emaitzetan motzen dabilen kanporatu nahi dituelako DBHn eta horrela esan ahal izango dute 4. DBHn eskola-porrota txikia dela. Hezkuntza negozio gisa ikusten dute eta gu eredu sozial eta solidario baten alde gaude, baina beste norabide batean datoz, orain arte egin duguna eta etorkizunean egin nahi duguna suntsitzera. Pedagogikoki, ikasleak errebalidatzen prestatu behar badituzu, ez zara haiek hezten ari, akademia gisa jokatzen duzu, azterketa baterako prestatzen dituzu, eta erre-

balidak ikaskuntza-ibilbide guztian jarri nahi dituzte.

Nola baloratzen duzue Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu berriaren orain arteko jarduna?

A.O.: Egia esan apenas eza gutzen dugun, ezer gutxi esan du, eta isiltasun horrek ez digu konfiantzarik ematen. Areago, Jaurlaritzak LOMCErikiko duen jarrera salatzen dugu, prest daudelako akordioetara iristeko eta Jaurlaritzaren erantzun horren beldur gara, Katalunian adibidez zuzenean ezezkioa esan diote lege-proposamenari.

E.Z.: Jaurlaritzak helegitea jarri du hezkuntza eskuduntzen inguruan, baina LOMCEri bere osotasunean ez, eta susmoa dugu euskararen trataeran nolabaiteko aurrerapausoa lortzen badute, Jaurlaritzak lege-proposamena onar dezakeela, eta LOMCEn beste gauza asko dago hezkuntza publikoaren bikotetara bidali dezakeena. Sistema publikoaren orokorrean desegin nahi dutela uste dugu, eta zehazki gure kasuan, hezkuntza. ■



“Jaurlaritzak helegitea jarri dio LOMCEri hezkuntza eskuduntzen inguruan eta susmoa dugu euskararen trataeran nolabaiteko aurrerapausoa lortzen badute, lege-proposamena onar dezakeela”

Edu Zabala, Hezkuntzan Geu Eragile

Uda 2013

Haurrak, gazteak eta helduak

Gabriel Aresti euskaltegia*

Hiri barnetegiak Bilbon, familientzako barnetegiak Bakaikun, ikastaro trinkoak...
 Udalekuak eta campusak Bilbon: bertsolaritza, futbola, txirrindularitza, pilota, rocka, mendia, arrauna, ingelesa, argazkilaritza, saskibaloia, antzerkia, Dj laborategia...

info + www.gabrielaresti.com
 Done Bikendi 2 - 4. - 48001 - Bilbo - tel 944 23 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Erresistentzia baketsua eta demokrazia

ARTIKULU HAU idazten hasterakoan, izenburua erabakita neukan. Lerroburu horiek ipini ditudanean ohartu naiz aurreko alean idatzitakoaren izenburua oso antzekoa zela: “Escrache”ak eta demokrazia. Egia esan, izenburua errepikatzea ez zen nire asmoa, baina guztiz koherentea iruditu zait herriak kaleetan adierazten duena “demokrazia” kontzeptuari lotzea oraingo honetan ere. Bada, horretaz ohartu eta gero, atzera egin dut sarreratxo hau gehitzeko.

Ondarroan orain hilabete bat, Donostian egin zen moduan, jende talde batek protesta egin du, gazte batzuk espetxeratzeko Auzitegi Gorenak emandako epaiak betetzearen aurka. Gizartearen zati batek injustutzat jo ditu ebazpen horiek eta atxiloteta horiek eragozten saiatu da “herri harresia” eraikiz.

Gizarte honek oraindik hausnartu beharko du iraganean gertatutakoaz eta horren kudeaketaz, baita erantzukizun pertsonaletaz ere. Hausnartu beharko dugu baita ere, zer-nolako erantzuna eman zaien batzuek burututako injustiziei. Hori beste kontua da ordea, gaurko honi lotuta dago, baina ez du baldintzatu behar.

Demokrazia ez da erakundeetan bakarrik betetzen edo, hobeto esanda, erakundeetan burutzen den demokrazia ez da, inolaz ere, bere azalpen bakarra. Demokrazia herritarron parte-hartzea da eta hori lor daiteke instituzioetan nahiz era zuzenean, baita kaleetan ere

Demokrazia ez da erakundeetan bakarrik betetzen edo, hobeto esanda, erakundeetan burutzen den demokrazia ez da inolaz ere bere azalpen bakarra. Demokrazia herritarron parte-hartzea da, eta hori lor daiteke instituzioetan nahiz era zuzenean, baita kaleetan ere. Parte-hartze demokratikoa ez da hauteskundeetan agortzen eta haserrea eta sumina adieraztea ariketa demokratikotzat jo behar dugu. Badirudi, gainera, bide honetatik jendea

ardura berezia hartzen ari dela, eta horrekin batera, erakundeetan gauzatzen den ordezkaritza zalantzan jartzen: horra hor Maiatzaren 15 eta Escrache mugimenduak.

Halere, herri harresiak baditu izan ezauzgarri bereziak: alde batetik, auzitegien epai bat betetzea oztopatzea du helburu —nahiz eta hori ere kaleratzeen edo etxe-gabeteen aurkako ekintzetan ere gertatu den—. Eta bestetik, eta hemen dago berezitasunik nabarmenena, ezker abertzalearen ekimena izan da. Ez edonolako ekimena: baketsua —horrela espres adierazita— eta guztiz sinbolikoa, inork ez baitzuen sinesten agindua beteko ez zenik, baina halere, hori egon zen hainbat pertsona beren elkartasuna eta haserrea adierazten. Horri erresistentzia esaten zaio, eta noski, ez da asmatu ez hemen ez eta orain, baina zentzu berria du niretzat.

Ezker abertzaleak egindako aurrerapausoen adierazpenak dira orain aipatutakoak. Kanean jarraitzen dute, bai, baina, inoren eskubideak zapaldu gabe, mehatxurik gabe eta horrela adierazi nahi izan dute.

Kontua ez da bat egiten dugun beraien argudioekin edota nola hartzen ditugun auzitegien ebazpen horiek. Kontua da denok izan behar dugula injustutzat jotzen ditugun egoerei aurre egiteko aukera, beste inori injustiziarik eragin gabe. Nire iritziz, hori besterik ez da gertatu herri harresi horiekin.

Azterketa ez da hemen bukatzen. Zer erantzun eman behar zioten erakundeek Ondarroan eta Donostian gertatutakoari? Bada, niretzat, eman dena: Eusko Jaurleri-tzak —Ertzaintzak, beraz— auzitegien aginduak bete behar zituen eta horrela egin du. Errazago eta ekonomikoki merkeago izan zitekeela? Bai, noski, baina gizarte demokratiko baten kudeaketa askoz ere “garestiagoa” eta konplikatuagoa baldin bada, dezentez aberasgarriagoa eta partekatuagoa ere bai. “Merkeena” gizarte isila, izutia eta koldarra da, baina hori ez litzateke jadanik gizarte izango, artaldea baizik, eta nik gizarte bizia eta erne nahi dut. ■





(e)zinezko
(e)timologiak

gaur:

«escrache»



ezkaratz. *iz.*

(1571; *eskaratz* 1596)

Bizitetxe baten sarbidea

*Jauregiko ezkaratzean eginen
dinagu gaur **ezk(a)ratzea**#*

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦



DANI BLANCO

Okerbide Estatua

GOSALTZEN nengoela, harrituta utzi nau politikari famatu batek: “Kataluniako herritarrei, euren etorkizuna erabakitzeke, hitza ematea demokraziaren aurkako ekintza da, demokrazia dagoen legedia errespetatzea baita, eta legedia horrek ez die uzten katalanei hitza hartzen”. Ogi xigortua kafesnera erori zait, eta zipiritinak alkandora jantzi berria zikindu dit, bat-batean.

“Hemen zerbaitek ez du funtzionatzen”, pentsatu dut trapearekin kafe orbana garbitzen saiatzen nintzen artean, “norbaitek oinarriak hankaz gora jarri dituelako”. Nola daiteke herritarrei hitza ematea antidemokratikoa izatea? Beste galdera bat izango litzateke, nola izan dezake horrek hain aurpegi gogorra? Baina tira.

Ilustrazioaren bultzatzaileek Zuzenbide Estatua ezarri zigutenean, legedia herritarren arteko oinarritzko akordio—hitzarmen soziala— bezala pentsatu zuten. Beraz, gizabanakoak dira oinarritzkoak, eta hauek elkarbizitzarako antolatzen dira, adostasun batzuetara helduz. Adostasun horiek lege bihurtzen dira, eta ondoren, forma juridikoa hartu dutenean, bete egin behar dira.

Logikarik baldin bada, denboraren poderioz, gizarteko akordioak, jendarteak aldatzen doan neurri berean, aldatzen joan behar dira, garai berriei egokituz, hitzarmen soziala eguneratuz, estatua eta gizabanakoaren arteko hitzarmenak oreka mantendu dezan.

Demagun hori horrela dela (eztabaidagarria izan arren, Marx gogoan). Horren arabera, herritarrei hitza ematea da demokraziaren oinarria, eta legea horretara egokitu beharko litzateke, herritarren nahia gauzatzeko bidea babesteko. Eta aldatzekotan, legea egokitu beharko litzateke, katalanek euren etorkizuna erabaki dezaten.

Baina, gaur egun euren burua ilustratutzat daukaten liberalek eta sozialdemokratek, ordea, beti gizabanakoaren aldarria egiten ari diren arren, gero, legea, honen gaineko bezala hartzen dute. Legeak gorpuztutako izaera aldaezin eta betierekoa bailuen.

Legeak, Zuzenbide Estatuak, Jainko itxura hartu du, eta gizakion arteko akordioek gain ezartzen den zementuzko kubo astun bihurtu zaigu, demokrazia beraren zentzua ere irentsi eta aldatu duena. Legea erlijio bihurtu dute, eta gizabanakoei beteazten digute, berezko edo naturala

bailitzan, gure arteko akordioa dela ezkutatzuz. Legearen inperioa, inperialismo bihurtu zaigu, eliteek, egoera hankaz gora jarritz, okerbideetik eroan diguten Estatuan.

Baina hori onartezina da, kotxerik ez datorrenean semaforo gorria dagoelako geldirik egotea bezalaxe. Ez zaizue iruditzen? ■



*Legearen inperioa,
inperialismo bihurtu
zaigu, eliteek,
egoera hankaz gora
jarritz, okerbideetik
eroan diguten
Estatuan*

DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Zaborra

NORK esango zuen zaborra hain modan jarriko zenik, orain balkoiek ere luzitzen dute, batzuetan gauza ederra da mugaz honantzko aldean bizitzea. Jendea bere alderdiarekin hain maila absurduraino lerrokatzen ez den lekuan. Hendaian zaborra beste gisa batera biltzen da; badira kontenedore klasikoak, jendeak zernahi botatzen du hara, baina bada atez ateko sistema bat ere, aspaldian martxan jarri zena. Herriko Etxeak etxe bakoitzari kutxa hori bat eta berde bat eman zizkion, horira botatzen ditugu papera eta ontziak, eta berdera beira, asteen behin etxe aurrera ateratzen ditugu,

eta herriko langileek biltzen dituzte. Ez da derrigorrezkoa eta birziklatze kopuru aldetik ez da oso emankorra izango, ez dut beraz eredugarritzat jotzen. Baina argumentu bat desaktibatzeke balio du. Nik, Hendaian, ez dut inoren ahotik entzun kutxa horiek gure etxeetako intimitatea urratzen dutenik, eta urteak dira darabilzki-gula. Zer da intimitatea, erosketak denen bistan egin, eta gero zaborra konfesategian apaizari entregatzea? Nik Hendaiaetik esango nuke argumentu barregarri hori bota litekeela errefusara. ■





Mikel Garcia Idiakez

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Nuclenor-ek adarra jo digu berriz

ANTZERKI HUTSA zela ohartarazi zuten eszeptikoenek, Espainiako Gobernuari (honek sektore energetikoan ezarri nahi zuen zerga-sistema berriari) presioa egiteko iragarri zuela Nuclenor enpresak Garoña zentral nuklearraren itxiera. Hain zuzen, betiko ixteko data baino hilabete eta erdi lehenago, martxan jarraitu nahi dutela adierazi dute zentralaren arduradunek. Eta utzi egingo diete gainera.

Izan ere, antzezlan honetan laguntza ordainezina du Nuclenor-ek (alegia, berau osatzen duten Iberdrola eta Endesa enpresa energetikoei). Batetik, Espainiako Gobernuak alfonbra gorria jarri dio Garoñari, ongi baitakigu PPK arlo honetan duen politika, eta segituan aurreratu du Jose Manuel Soria Energia ministroak “albiste ona” dela 43 urteko zentral zaharkituak martxan jarraitzea. Bestetik, ager-gordeka ibili ostean, Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak argi utzi du, beste behin, zein irizpideren arabera hartzen dituen erabakiak. Erakunde guztiz politizatua –alderdi politikoek aukeratzen dituzte Kontseiluko bost kideak: PPK bi, PSOEek beste bi eta CiUk bat– eta pronuklearra izanik –enpresa elektriko nuklearretan lan egindakoak dira kideak edo haiei lotuak daude–, Garoñaren jarduna luzatzearen alde egin dute beti –2009an hala ebatzi zuen Kontseiluak, nahiz eta zentralak ez zituen betetzen aurretik eskatutako baldintzak, eta iaz ere luzapena gomendatu zuen, Europar Batasunak eskatutako “estres probak” egin aurretik–.

Lobby pronuklearren bultzadaxoa ere ez zaie gaizki etorriko,

aurretik esperientzia franko dute: iaz, zentralaren luzapena eztabaidatu zenean, Garoña barik argindarraren prezioa hilean %10 garestituko zela mehatxatu zuten, baina talde ekologistek gogoratu ziguten potentzia gutxiko zentrala dela Burgoskoa, Estatuak argindarraren %1,3 baino ez duela ekoizten eta horren laukoizta esportatzen duela Espainiak Portugalera eta Marokora.

Antzezlanean laguntza ordainezina izan dute Iberdrolak eta Endesak: Espainiako Gobernuak eta Segurtasun Nuklearraren Kontseilua

Aldiz, asko dira zentralaren jarduna eteteko arrazoiak. Energia nuklearretik harago doa eztabaida, aspaldi iraungitako zentrala baita Garoña (1970ekoa da, Espainiako zaharrena): Nuclenor-ek esan arren “teknologia berriei esker osagaiak aldatzen, hobetzen eta modernizatzen” joan direla, Alberto Frias Garoñarik Gabeko Araba taldeko kideak argi adierazi zigun: “Erreaktorearen ontzia ezin da aldatu eta funtsezkoena hori da; Seiscientosari karrozeria aldatuz BMW bat lortzen saiatzea bezala da (...) Arazo estrukturala da: Garoñak ezin izan du konpondu duen korrosio intergranularra eta geroz eta akats gehiago ditu, onartezinak”. Horren adibide, zentralak berak aitortu dituen “segurtasun istripuak”. Ez dute jubilatzen utzi nahi, ordea. ■



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali

JENDAURREKO IRAKURRALDIA

Euskal literatura bogan, Hendaian

Ekainaren 5ean, goizeko 11etan hasi eta arratsaldeko 8ak arte, Itxaro Bordaren *Boga-boga* eleberria leituko dute 109 lagunek, hasi eta buka, Hendaiaiko Mediatekan. Laugarren irakurraldi publikoa izanen da aurtengoa, eta estreinakoz, Euskal Herri osora luzatu dute parte hartzeko gonbitea.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

LITERATURA, irakurzaletasuna sustatzeko aha-legina, euskararen ikusgarritasuna eta plazera sare berean harrapatzen dira ekainaren hastapeneko buelta horretan, beti asteazkenez, antolatzen den jendaurreko irakurraldian. Herri osoa ukitzen du ekimenak, hain zuzen,

ikastetxeetatik hasi eta enpresa, aisialdiko talde, elkarte, erakunde nahiz norbanakoenganaino heltzen baita parte hartzeko deia, Akelarre Kultur Elkartea tarteko dela. Aurtengoak, laugarren edizioa duen honetan, herriko mugetatik harago zabaldu nahi izan dute esparrua.

Miren Intxausti: «Irakurmen kolektiboaren

Nola sortu zen ekimena? Literatur taldea al dago ideiaren atzean?

Ez zen zehazki taldearen ideia izan, bertako bi zororena baizik, biak irakasleak. Oso kontzienteki ez bazen ere, ikasleak irudikatzen genituen jendaurrean irakurtzen. Jakina, babestuta, helduez edo, hobeto esan, euskal hitzak orobat maite dituen jendeez inguratuta. Zergatik bereizi behar dira haurrak eta helduak publikoaren aitzinean? Bestalde, Arriagako irakurraldia ezagutzen genuen eta Hendaian ere egin genezakeela iruditzen zitzaigun eta horrelaxe proposatu genion Akelarri. Babesa eman ziguten, eta azpiegitura eskaini. Beraz, eta galderari helduz, Akelarrek badu literatur taldea, baina irakurraldia antolatzen duena hiru kidez osatutako beste talde bat da. Jakina, elkarren ifrentzua gara.

Zer helburu du irakurraldiak?

Luzarorako helbururik ez du. Ez



Hendaiaiko Irakurraldiko antolatzailea da Miren Intxausti, Gema Elorriagarekin eta Jean-Pierre Artolarekin batera.

gara ari misio baten ardura bage-neuka bezala, eta hura galduko balitz katastrofea gertatu litzatekeenaren ustean. Ez zaigu iruditzen irakurzaletasuna bultzatzeko edo euskara maitatzeko nahitaezkoa denik. Egunen batean irakurraldirako ilusiorik inon ez bada,

bukatuko da eta kito. Jarraipenaren bermeak ez gaitu axolatzen. Ilusioa, kemena eta denbora maite dugunari eskaintzen diogu. Beraz, helburuak oso hurbilekoak dira: hurrengo urtean ere Irakurraldi Publikoa gauzatzea.

Hastapeneko helburuek bere horretan dira. Hala nola, adin guztiak nahasirik publiko aurrean jardutea batetik, eta bestetik, idazlan bat ezagutaraztea eta bide batez sortzaileari oihartzun mediatikoa eta gure onespena eskaintzea.

Ondorioez mintzatuko bagina, esango nizuke irakurmen kolektiboaren gozamenak sustatzen dugula parte-hartzaileen artean, eta euskara ikasten ari direnei, berriz, euskara besteei emateko parada ere eskaintzen diegula.

Zer eboluzio izan du lau urteotan?

Parte-hartzaile dagokionez oso gustura gaude. Haurra edo heldua izan, jendaurrean irakurriko duten

Hitzordua, beraz, hilaren 5ean izango da. Goizeko 11etatik hasi eta arratsaldeko 8ak arte, Itxaro Bordaren *Boga-boga* nobela irakurriko dute 109 lagunek, pertsonaia ezagunak tar-teko direla. Hala nola: Amets Arzallus eta Sus-trai Colina bertsolariak, Battitt Sallaberry auzapeza, Kotte Ezenarro politikari sozialista, Beatrice Molle eta Frank Dolosor kazetariak, Gorka Arrese Susa argitaletxeko editorea, Pax-kal Indo Seaskako lehendakari eta musikaria... Parte-hartzaile bakoitzak bina orrialde hartuko ditu bere gain, alde zurretik antolatzaileek finkatutakoak, irakurleen artean etenik egin gabe, liburua osatzea izango da xedea.

2010etik honakoak

Hendaian antolatutako lehen irakurraldi publikoak Euskal Herriko legendak hartu zituen gaitzat, eta Anuntxi Arana antropolo-goia izan zuen ohorezko gonbidatu eta babes-le. Hark abian jarri zuen ekitaldian, 7 urtetik 75era bitarteko 65 irakurle bildu zituzten. Bigarren urtean, Lucien Etchezaharreta izan zuten protagonista, eta bere *Inter Porcos* (Maiatz, 2007) ipuin-liburua gogoan, anima-lien gaiari heldu zioten 101 lagunek. Erran zaharrak, alegiak, kantuak, ipuinak, olerkiak

GAIZKA IROZ



Itxaro Borda, Baionan, Santizpiritu zubia atzean duela.

gozamina sustatzen dugu»

testua ondo prestatu behar dutela esaten diegu denei. Ez dugu perfekzioa eskatzen, irakurlea testuan sar dadin baizik, berea egin dezan. Hitzak ulertzea, ahoskatzea, idaz-learen munduaren zatitxo horretan sartzea.

Eskarmentu handia irabazi dugu antolaketa mailan. Urteko lan agenda finkatu eta garaian garaiko egin-beharrak burutzen saiatzen gara: liburua hautatu, idazlearen adostasuna, publizitatea erakarri, irakur-leak bildu, komunikabideetan ager-tu, irakurraldiko eguna finkatu... Ahalegin handia egiten dugu idaz-lea gure artean ongi senti dadin, eta urtetik urtera hobeto asmatzen dugulakoan gaude.

Zer panorama ikusten duzue Hendaian euskarari eta literaturari dago-kionez?

Pertzepzio partziala dut. Euskal hiztunen talde-agerpenak izan badi-ra, baina gordeak. Esan nahi baita,

badira tokiak non euskaraz ari garen: ikastola, irakurraldia, bertso saioak, antzerkia, zinema, dantza... baina gero, kanpoan, euskal hiztu-nen kolektibo hori ez da ageri, lau-sotuta gelditzen da. Hendaian eros-ketak egiten dituzunean, hondartza aldeko ostatueta ibiltzean, non dira euskaraz badakiten horiek guz-tiak? Ez dira ageri, alta badira. Bizi-moduak beti okupatuta egotera bultzatu gaitu, eta dagoeneko ez dugu denborarik ez dirurik kalean gure artean biltzeko. Aldiz, mota guztietako ekimen sozialak ditugu: kirola, kultura, politika. Sekula baino gehiago, nire ustez.

Euskalduntasuna gure egin eta plaza publikoan agertu behar dugu helduok. Euskararen etorkizuna ez dira haurrak, geu gara, helduok, nagusiok; geure borondatez pen-tsatu, planifikatu, neurriak jarri eta ekiditeko gai garenok. Haurrentza-ko pedagogiarik onena etsenplua da, eta koherentzia. Haurrek ikaste-

txetako jolastokietan euskaraz hitz egin behar badute, guk ere bai tabernan eta gure artean.

Gure literaturari dagokionez, erantzuna aurrekoari lotuta dago. Literatura aipatu eta batzuk termi-noak berak beldurtzen ditu. Bi alderdi bereiziko nituzke. Batetik, nola liteke euskara dakien hainbes-te lagunek –jende nagusiaz ari naiz, irakasleak barne– hain analfabeto irautea bere lehen edo bigarren hiz-kuntza den horretan? Deus ez ira-kurtzea, ez idaztea... Gainditu behar dira nagia, zailtasuna eta den-bora falta. Bestetik, irakurtzeak ez du esan nahi bakarrik egin behar denik. Taldean ere egin daiteke. Taldean, irakurri eta mintzatu, biak egiten dira. Taldea toki aproposa da euskaraz irakurtzen hasi nahi due-narentzat.

Zerk animatuko zaituzte hurrengo bat ere antolatzera?

Guk atsegin dugun zerbait egiteak, xinpleki. Denbora izateak eta anto-laketarako azpiegiturak ere lagun-tzen du. Ilusioak naturalago irauten du horrela. ■



eta beste irakurri zituzten, baita espresuki horretarako sortutakorik ere, Mikel Ibarguren testua kasu. Bi irakurraldiotan nork bere gustuko irakurgaia hautatu eta eskuetan zuela heltzen zen mikrofonoaren aurrera. Ikasle ugari ere bazelako, edizio biziak izan ziren, ez hain formalak.

Hirugarren saioan, alegia iazkoan, aspaldian hendaiaartutako Hasier Etxeberria idazlearen eleberria irakurri zuten adin guztietako 70 lagunek: *Inesaren balada*.

Hasier Etxeberria idazlea eta Gema Elorriaga antolatzailea, *Inesaren Balada* nobelaren irakurraldian, iaz.

Aurtengo ediziorako Amaia Ezpeldoi detektibeak argitu behar duen misterioak erakarri ditu antolatzaileak. Eleberria Baionan eta Ipar Euskal Herrian kokatu izana, errugbia, emazte kale garbitzailea, harreman lesbikoak, garai bateko egoera politiko eta sozialaren ondorioak eta idazlearen espiritu kritikoa gustatu zaizkie bereziki.

Iazkoari jarraiki, saio guztiak grabatu egingo dira —kontrakoa adierazten dutenak salbu— eta streaming bidez jarraitu ahal izango dira zuzenean, www.akelarre-hendaia.com helbidean. Mediatekaren kanpoaldean ere pantaila ezarriko da, ekimenak aretotik kanpo ere presentzia izan dezan.

Irakurraldia aberasteko, gainera, eta Itxaro Bordaren lexiko zainduaz gozatzeko, Joxan Elosegik landutako hiztegia ere eskura jarri dute helbide berean. Haren hitzetan, “merezi du Bordaren literaturak, haren testuak, eta horretan badu garrantzia, ekialdeko mintzairetatik, Amikuze eta Zuberoako hizkuntza moldeetatik bereziki, euskara estandar modernora egin duen bide oparo bezain aberasgarriak”.

1030 euroko aurrekontua du aurtengo irakurraldiak. 660 Euskal Kultur Erakundeak emango dizkio eta 370 Akelarre Elkar-teak hartuko du ere gain. ■



EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELO ARGIA
HONEN FIAN

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

«Autoreen arteko elkar ulertzea eta ekimena bilatzen ditut»

Krisiak jauzi kualitatibo handia ematera bultzatu zuen Saure argitaletxea, duela hiru urte. Paperezko albumak alde batera utzi eta digitalaren munduan sartu ziren buru-belarri, streaming formatua hobetsita. Kultura, bakea eta ekologia dituzte ardatzak, eta kalitatezko jendarteak umorez islatzea, betiereko asmoa. Hurrengo erronka: esperantoa.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Zein da zuen hizkuntza politika?

Tokian tokikoa egin behar da. Hartu zaituen herrira egokitu beharra daukazu. Euskarazko liburutatik abiatu nintzen, gaztelaniari heldu genion gero. Halaber, frantsesera ere itzultzen dugu dena, nire hizkuntza den aldetik, eta baita ingelesera ere, lingua franca izaki. Orain portugesari heldu diogu, hizkuntza interesgarria delako, Brasilera begira. Gure lan hizkuntzak bost horiek dira oraingoz, eta potentziatu nahi genituzke, hizkuntzen aniztasunean denek dutelako ekarpena. Arazo bakarra ikusten diot, hizkuntza asko denean, norbere hizkuntzaren esentzia galtzen dela, eta ingelesa ez da soluzio egokia. Gizaki guztiek hizkuntza osagarria izatea nahi badugu, zalantzan jarri beharko genuke hizkuntza osagarri horrek ingelesa izan behar duenik. Gaur badelako, baina hemendik zenbait urtera txinera ere izan litekeelako, adibidez.

Baina munduak ingelesaren alde egin du garbi.

Norantza bakarrean doala dirudi, baina gerta liteke zenbait urteren bueltan joera aldatzea, arrazoi bat edo beste tarteko. Ingelesa oso zaila da, ez beharbada gramatika, baina ulermen oso zailkoa dugu, ez da hizkuntza argia, errazago konprenitzen da ingelesez ari den italiarra, ingelesez ari den ingelesa baino. Bost lan hizkuntza ditugu, eta zenbat eta gehiagorekin aritu, orduan eta behar handiagoa dut hizkuntza neutro bati heltzeko. Erronka ere bada.

Esperantoari helduko diozu?

Hain zuzen, horixe izango da nire hurrengo ahalegina, esperantoa ere kontuan hartzea

hurrengo lanetan. Aldarrikatzen dena fisikoki demostratzea ere komenigarria baita. 2014rako finkatu dugu esperantoz plazaratzeko epea. Nire ustez, esperantoa indartu beharko genuke zuzenean, hizkuntza osagarri horrek neutroa behar duelako izan. Zibilizazio bati lotutako hizkuntza, osagai propioak dituen, ezin da inposatu, ez da ona, hizkuntzaren osagai horiek ere partekatu behar direlako. Institutioek ere lagundu beharko lukete hizkuntza neutro hori indartzen.

Zein aurreikuspen duzue salmenta aldetik?

Epe motzean saldu beharretik abiatzen bagara jai dugu, ezer ez baita errentagarria. Argitaldarien eta arlo horretan diharduten enpresarien lana, besteak beste, inbertsioak egitea da, eta bidearen zati bat partekatuko duten erakundeak erakartzea. Oso positiboa da hori eta horretan ari gara, bestela denak desageretuko baikara.

Argitaratzaile bezala gidoiak hartzen ditut, eta narrazio motarekin bat etorriko diren marrazkilariak bilatzen ditut. Ondoren kolorkistak heltzen dira eta atzetik itzultzaileak. Halaxe sortzen da liburua. Gero hedapena dator, etengabe aldatzen ari den arlo hori. Jada ez dugu paperik, digitalak dira gure liburuak, eta zenbait plataformatara heldu beharra dugu. Azken aldi honetan hezkuntza plataformak hartu ditugu kontuan, eta liburuaren mailaguan oinarritzen direnak, gupil modukoak.

Zer-nolako lana izan da digitalera pasatzea?

Papereko ia gehiena pasatzea lortu dugu. Autoreen %20ak ez du formatu berrira pasa-

tu nahi izan, baina %80ak bai. Baimena eman diguten horiena ari gara digitalera pasatzen.

Lan moldea aldatu duzue?

Ez. Lehen bezala ari gara funtsean. Autoreari aurrerapena ematen zaio. Saldutako aleek aurreratu dugun dirukopurua gainditzen dutenerako pare bat urte iragango dira. Hauxe da, nolabait, argitaldaria eskaintzen duen bermea. Autoreak berak ere igo dezake egin duen lana plataformara, baina ez du argitaldaria ematen dion aurrerapena izango. Eta bali-teke bi liburu besterik ez saltzea. Bestalde, gu plataforma ugaritara heltzen ari gara eta akordioak etengabe hitzartzen ditugu. Gure lanak bilaketa, ikerketa, eta plataforma nahiz hizkuntzekiko kongruentzia ere hartzen ditu bere baitan.

Editorea, bestalde, dinamizatzailea da. Nire kasuan, gainera, bildumak sortzen ditudalako, eta autoreak, bilduma bati lotzen zaionean, liburu bat baino gehiago egingo duelako. Esate baterako, ekologian, Txani Rodriguez laudiotarra dugu egilea. Azken hiru liburuak, 10-12 urteko gaztetxoei zuzendutak, *Zeharkaldi urdina*, *Tulmesera itzuli* eta *Uretarrak* ditugu. Komiki gehienek kontuan dute heziketa, ez lezioak erakusteko, giza kalitatezko mundu batean kokatzeko baizik.

Promozioari dagokionez, kaleko presentziarik ez izateak aldatuko zizueten funtzionatzeko modua.

Paperean ginenean errazagoa zen. Tailerrak antolatzen genituen eskoletan, liburu azokak



“Umorea present dugu beti, bestela testu-liburuak egitea bezalatsu litzateke”.

renak dira, euskaraz sortuak. Ez da erraza internet munduan sartzea eta hastapenetik pagatzen hasia. Pedagogia pixka bat behar da. Hauxe da gure planteamentua: tori hau doan, zenbait galdera egiten dira, kasu honetan naturari buruz; gustatu bazaizu, eta gehiago jakin nahi baduzu, jar zaitez argitaletxearekin harremanetan, eta ikusi zer duen. Pirateoaren aurka babesteko eta aldi berean hezteko saioa ere bada.

Bakea, ekologia eta kultura dituzue ardatzak.

Ez dugu alde komertziala bilatzen. Superheroiak badituzte euren plataformak. Sentsibiltate jakin bateko autoreen arteko ekimena eta elkar ulertzea bilatzen dut. Eta umorea present dugu beti, bestela testu-liburuak egitea bezalatsu bailitzateke. ■





Liburu azoka

Bilbon, maiatzaren 30etik ekainaren 9ra, Areatzan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Iraganetik datorren etsaia

AURRETIK ere misterio eta beldurrezko lanak argitaratu ditu Jokin de Pedrok, eta alde horretatik euskal irakurleak horren esperoan izango ditu. Are gehiago honelako izenburua duen obra baten aurrean aurkitzen delarik.

2010eko apirilaren 15a eta 2011ko maiatza bitartean kokatzen den nobela honek oso erritmo bizia du. Apirilaren 15etik maiatzaren 3ra bitartean gertatzen dira nobelaren gertakari ia guztiak eta azken bi kapituluak, urriaren 9an eta hurrengo urteko maiatzaren girotuak, nolabaiteko amaiera ematen diote istorioari. Lehen 13 kapituluak dira, beraz, liburuaren nondik norakoak markatzen dutenak eta irakurlea eskenatoki, pertsonaien zenbait ikuspegi eta gogoeta ziztu bizian eramaten dutenak.

Mehatxua jasotzen du telebistan albiste aurkezle ezagun batek eta horren ondorioz bere bizimodua hankaz gora jartzen dela ikusiko du. Testuinguru horretan bere iloba psikologoa eta mehatxuak ikertzen dituen polizia agertzen zaizkigu Josu Arriola kazetariarekin batera. Hiru horiek ditugu nobelako pertsonaia nagusiak, eta alboan Arriolaren mundua eta iragana.

Mehatxuen jatorria ikertzeko Arriolaren bizimoduan murgilduko da Gorospe inspektorea eta prozesu horren lekuko izango gara orriak eta egunak aurrera egin ahala.

De Pedrok irakurlea harrapatzen du erabiltzen duen estilo arin eta biziarekin; elkarrizketek pisu handia dute; deskribapenak eta gogoeten aldean informazioaren bizitasuna, galdeketeak, kazetaria eta inspektorea edo ilobaren arteko elkarrizketek dute. Horrez gain nobelan zehar mantentzen den tentsio puntuak ere irakurlea aurrera egitera animatzen du. Gutunetatik bonbara pasa baita mehatxugileak une batean, eta horrekin Arriolaren mundua erabat aldatu.

Gustura irakurtzen den nobela dugu *Etsai gordea* baina, nire ustez, egileak ez du asmatu Gorosperen karakterizazioan; izan ere polizia azkarra bada eta estilo propioa badu ere, liburu egileak euskara aldetik ere karakterizatu du; bera da liburuan bizkaieraz mintzo den bakarra; gainerako guztiek euskara batu garbian hitz egiten duten bitartean Gorospe hor agertzen zaigu “Ederto, Gontzal, ez deusut denbora gehiago kenduko.(...) Ez da ezebe, andrea. Zer hartu gura dozu?” bezalako hizkerarekin. Alegia, ulergarriagoa izango litzatekeela Gorospek bezala beste pertsonaiek ere hizkuntza aldetik karakterizazioaren bat izatea; ez dakigu istorioa Bizkaian gertatzen den ala Euskal Herriko beste zein tokitan.

Edozein kasutan, eta hizkuntzaren kontu hori alde batera utzita, nobela poliziako edo misteriozkoen ezaugarriak ongi betetzen ditu De Pedroren lan honek. Intriga, ekintza ugari, gertakarien inguruko ikerketa, inspektore burugor bat... eta amaieran korapiloa askatzen duen informazioa. Nobelan barrena zerbait iradoki daitekeen arren irakurlea harrituko duen amaiera bitxi bezain lortua. ■

Xabier Etxaniz Erle



Gazte literatura



Etsai gordea
Jokin de Pedro
Elkar, 2013

Ontsa hiltzeko eskarmentua eta festa

ESKARMENTUAREN PAPERAK liburu preziatuaren ahizpa omen da *Paper-festa*. Egile berarenak biak, ez bikiak horregatik. Osagarriak, naski.

Bizitzaz ari da egilea oroz gain, eta horregatik, heriotzaz ari dela erranen nuke. Bizitza, funtsean, borroka da. Bizitzeko arrazoiak ez omen luke borroka izan behar, baina arrazoiak loturik bizi gara, sarritan bizitza zer den endelegatu gabe, patua horixe dugula barneratu barik.

Paper-festa izenburua baikorra begitandu zait, eta kontrastean, liburuaren funtsa, azaleko Buster Keaton-en (*The General* filmean) bisaia bezain tetricoa. Bizitza irudi-festa bihurtu dugun honetan, herio ondo-ondoan dugula gogorazi dit paper-festa honek, baita aditzera eman ere, hobe dugula heriori bekoz beko so egitea, begirada itzuri gabe. Gerrak edo gaixotasunak direla eta, bizitzea heriori parez pare begiratzea dela iradoki didate txatal gehientsuenek: bizitzen ikastea hiltzen ikastea dela.

Modu askotara bizi daiteke hiltzera bidean: oinez bide eginez, naturaz gozatzuz, herio bidaide naturala izaki. Baita, liburu hau bidelagun, herio gogaide bihurtuz ere, bizitzako topikoak edota bizitzaren absurdua itzuriz.

Bizitzea etengabe aukeratzea da. Heriotzaren etorrera ezin saihesturik, bizitza eramangarriago bihurtzeko gakoa dateke literatura, bizitzan sartzeko eta bizitzatik ateratzeko atearen gako. Nago baina, heriotza paper-festa lege bizitzeko, komeni dela eskarmentuaren paperak ezagututa bide egitea. ■

Mikel Asurmendi



Paper-festa
(Minimalia)
Anjel Lertxundi
Alberdania, 2012



Pucciniren *La bohème*

Parmako Antzoki Regioaren Orkestra.

Zuzendaria: Miguel Angel Gomez Martinez.

Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin. **Eszena Zuzendaria:** Emilio Sagi.

Bakarlariak: Inva Mula (sopranoa), Stefano Secco (tenorea), Carmen Romeu (sopranoa), Simone Piazzola (baritonoa).

Lekua: Euskalduna Jauregia. **Data:** maiatzaren 18a.



Emozio unibertsalak

MUNDUA, gizartea, dena aldatzen da, baina badira hainbat sentimendu, emozio, sekula aldatzen ez direnak, eta, nahiz eta gaur egun esan genezakeen bizitza nahiko makinala daramagula, hunkitu egiten gaituzte.

Amodioa eta heriotza protagonistak dira Puccini-ren *La bohème* operan. Pariseko *Quartier Latin* auzoan kokatzen da ekintza, eta, hasieran alaitasunez eta kezkarik gabe (baita dirurik gabe ere) bizi den artista talde bat da protagonista. Baina bizitza alai hori tragedia bihurtzen da protagonista den Mimi tisiak jota hiltzen denean. Hau da, argumentu sinplea, baina negarra eragiten duten horietakoa. Pucciniren musika biribilak bilgarri zoragarria eman dio istorio honi. Sentimenduak asaldatu egiten dira partiturari esker. Laburbilduz, XIX. mendeko opera ederrenetako bat da, dudarik gabe.

Aldi honetan, produkzio sinple eta garbia ekarri du OLBEK denboraldi honi amaiera emateko. Oviedoko Opera Fundazioaren muntaketa honek, bere soiltasunez, erakarri eta harrapatu egiten du publikoa lehenengo momentutik. Eszenografia errealistak, azkenaldi honetan hain modan dauden keinu oniriko arrarorik gabea, sinesgarritasuna eman zion akzioari. Emilio Sagiren eszena zuzendaritza, oso eraginkorra, bestalde.

Baina goazen alde musikala aztertzeraz. Parmako Antzoki Regioaren Orkestra leuntasunez aritu zen uneoro, ahotsak azpimarratuz, delikadeziaz. Gure artean aski ezaguna den Miguel Angel Gomez Martinez zuzendariak (Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria izan zena lehenengo garaian) frogatu zuen kalitatezko opera-zuzendaria dela, dudarik gabe. Eta ahotsak, ongi, orokorrean. Bikain bat merezi izan zuen Inva Mula sopranoak, Mimiren rolean, modu zoragarri aritu baitzen aria eta duetto guztietan. Ez zen hain inspiratua ibili, aldiz, Stefano Secco, Rodolfo jokatu. Carmen Romeu soprano valentziarrak Musetta perfektua egin zuen. Gaitasun bokalak ez ezik, interpretaziorako sena ere ederki luzitu zuen. Bere *Quando m'en vo* (Musetta-ren bals famatua) bizi eta indarrez beterik atera zen. Simone Piazzolak Marcello komentzigarria egin zuen, bere ahots tinbratuari esker.

Bilboko Operako Abesbatza, fin, beti bezala, eta aipamen berezi bat Leioa Kantika Koraleko umeei, bikain aritu baitziren. ■

**Montserrat Auzmendi
del Solar**



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua



Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Darko Kovacevic Realeko aurrelariak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


	8			2		7	9	
	9		6	7	8		4	
			4	9	5	6	1	8
	1		9			4		
4	7	5				1	2	9
		9			2		5	
2	3	7	5	1	9			
	4		2	6	3		7	
	5	6		8			3	

Zaila

		2					9	3
5			2					7
			8			2		
9			1	6		7		
2	4						5	9
		3		5	9			6
		9			8			
6					7			8
8	1					9		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Laster, azkar. 2.-Aldi, sasoi. 3.-Herren. 4.-Dira. 5.-Urratsak emanaz.

Kike Amonarrizen umorea

Abokatuaren galdera



– Elkarren-gandik zenbat metrora zeuden autoak talka egin zutenean?



Soluzioak

Erraza

6	8	4	3	2	1	7	9	5
5	9	1	6	7	8	2	4	3
3	2	1	6	7	8	2	4	3
5	9	1	6	7	8	2	4	3
3	2	1	6	7	8	2	4	3
5	9	1	6	7	8	2	4	3
3	2	1	6	7	8	2	4	3
5	9	1	6	7	8	2	4	3
3	2	1	6	7	8	2	4	3

Zaila

4	8	2	6	7	1	5	9	3
5	9	1	2	3	4	6	8	7
3	6	7	8	9	5	2	4	1
9	5	8	1	6	2	7	3	4
2	4	6	7	8	3	1	5	9
1	7	3	4	5	9	8	2	6
7	3	9	5	1	8	4	6	2
6	2	5	9	4	7	3	1	8
8	1	4	3	2	6	9	7	5

Puzzlea:

“Mundu guztiak daki zenbat maitre dudan Reala, eta futbolekin ezin da inoiz jakin zer gertatuko den. Realekin beti Lehen Mailan jokatzeko espero dut”.

5x5:

1. Agudo. 2. Garai. 3. Urgun. 4. Dauda. 5. Oinez.

Euskal literaturaren beharrianak aztergai, Larrabetzun

LITERATURIK ekitaldi ugari proposatuko ditu hiru egunez, maiatzaren 31tik ekainaren 2ra bitartean. Igandeko menuko plater nagusia, kasura, mahaiaren bueltan eskainiko da, goizeko 11etatik hasita. *Euskarazko itzulpengintzaren erronkak gaur egun* izenburupean antolatu den solasaldiak euskal literaturaren beharrian zelan erantzun beharko litzaiekeen argitzea izango du xede. Parte-hartzaileak hautatzeko garaian, aspaldion sortu diren argitateak izan dituzte gogoan, Danele Sarriugarte antolatzailerak argitu digunez, “eredu gureztat berri batean oinarritzen direlako, eta bereziki itzulpengintzan zentratu direlako”. Hala, Iñigo Roque itzultzailea, Edo! argitaletxearen izenean, Joxemari Sestorain Cénlit-Denonartean-eko kidea eta EIZIEko partaideren bat eseriko dituzte mahaiaren bueltan.

Mamitzeko zenbait ildo proposatuko dizkie Danele Sarriugartek, mahai-inguruaren gidaria ere izango den aldetik. Lehenik eta behin, itzulpengintzaren aldeko apustu tin-koa egin duten hiru erakundeon bilakaeraz eta iritziaz galdegingo die. Bigarren puntu gisa, hauen aldean, bestela diharduten argitaletxeak hartuko dituzte mintzagai; esan nahi baita, euskal literatur produkzioa babestearren, itzulpenik kontuan hartu ez dutenak.

Itzulpengintzaren inguruko aurreiritziei ere helduko zaie gero. Besteak beste, literatura kultura besterik ez euskaratu izana egotzi izan baitzaio urtetan. Horrenbestez, best-sellerrei heltzea konponbidea ote den, itzulgaia arazo ote den edo bestelako faktorerik ba ote dagoen ere aztertuko dute. Azkenik, garai ekonomiko latza eta sare sozialak ere mahairatuko dira.



Danele Sarriugarte idazle, itzultzaile eta Literaturiako antolatzailerak gidatuko du *Euskarazko itzulpengintzaren erronkak gaur egun* mahai-ingurua. Ekainaren 2an, goizeko 11etatik hasita, Larrabetzun.

Solasaldiak izan lezakeen interesa ikusirik, zenbait galdera luzatu dizkiogu Danele Sarriugarteri:

Itzultzailea eta idazlea zara zeu ere. Zure ustez, zein neurri izan beharko luke itzulpengintzak euskal literaturaren produkzioan?

Bi sorkuntza motak, euskaraz idatzitako literatura eta euskarara itzulitakoa, zentzuz uztartzea beharrezkoa eta aberasgarria da. Ez nuke jakingo zehazki proportziotan neurtzen, hala ere, produkzioaren beraren aldetik egun dugun egoera nahiko ona dela iruditzen zait, orain arte izan den onenetarikoa. Dena den, kopuru aldetik bainoago, uste dut aldaketak itzulpenarekiko jarreraren behar duela egon, alegia, gero eta lausoago ikusten dut sortzearen eta itzulzearen arteko muga, zer puntutara ino ez den euskarazko sorkuntza euskarara itzulitako obra bat...

Sare sozialei egundoko garrantzia ematen diozu, eleazari.org bloga kudeatzen duzu. Zer garrantzi ema-

ten diezu hedatzeko moldeoi mahai-inguruan planteatu dituzun hausnarketei dagokienez?

Azken hamarkadotan, euskarako itzulpengintzaren kalitateari eta ikusgarritasunari dagokionez, aurrerapauso handiak eman dira jende askoren lanari esker. Ez dut uste hobekuntza hori inork ukatuko duenik. Hala ere, egin diren azterketek oraindik mugarik badela erakusten dute, badirela irakurle goaren-gana iristeko oztopoak, aurreiritziak izan edo beste kontu batzuk izan.

Galdera bota nahi diet mahaikoei, ea sare sozialek eta hedabideek muga hori haus-ten lagun dezaket. Konparazio baterako, EIZIEk 31 eskutik bloga abiatu du orain dela gutxi, eta arrakasta itzela lortzen ari da. Bide hori jorratzen jarraitzeko aukerez jardun nahi dut.


Zer ordorio aterako da Literaturiako mahai-inguruan, zure ustez?

Badirudi garaiotan debekatuta dagoela halakorik esatea, baina ondorio positiboak aterako direla uste dut, hau da, itzulpengintzak bidea urratu behar duela oraindik, eta horretarako badela jende gogotsua. Oztopo batzuk atzean utzi ditugu dagoeneko. Beste batzuei erantzuteko unea dugu orain. Garaia ez da samurrena, hori argi dago, eta agian itxura baikorregia eman dezaket, baina inportantea da ez etsitzea.

Ez dakit mahai-inguruak zehazki norantz joko duen, baina gaurko erronkei alternatibak emateko proposamenak planteatzea da nire helburua, horri buruzko eztabaida eta hausnarketa sortzea, aurrera egin dezagun, eta ahal dela indarrez eta ilusioz. ■

**Garbine Ubeda
Goikoetxea**





Euskal Herria ezagutuz

HONDARRIBIA (GIPUZKOA)

Mundu baten hasiera

Portua esaten zaio San Pedro kale entzutetsuaren alde banatara hedatzen den Hondarribiko auzoari. Jaizkibel magaleko auzotegiak gibelaldean. Parez pare Bidasoa, Txingudi, itsasoa; laño, Baionako barraraino. Izango da gaur egunean auzorik zapalduena, akaso estimatuena. Alde zahar eder, baina lozorro, denboran geldituak ematen duen postalezko irudiaren aurrean, bizitasuna baitu ezaugarri.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkiak: Dani Blanco

LEHEN KOLPEAN eman dezakeenaren kontra, aspaldikoak dira auzoa existitzearen zantzuak: Antso Abar-karena zen —eta orain Carlos V.aren izena daraman— gazteluaren bueltan osatu zen hiribilduaren aurrekoak. Madalena ermita zenaren inguruan hasi zen auzoa egiten. Santiago bideetan —eta kostako bideko pasaleku da Hondarribia— ibai ertzean eraikitzen ziren erromesen ostatuetako bat zen Madalenakoa. Baina beti izan da murrueetatik kanpo geratu den auzoa, aldiria, errebala. Eta gaur egunean ezagutzen duen esti-

mua, ez da beti izan halakoa. Itsasotari eta arrantzari emana, jaso izan du urte luzeetan zehar hiribilduaren destaina: etxe berriak eraikitzeko debekua, komertzioak irekitzekoa, labur, hiribilduari itzal egitekoa.

Bigarren Gerra Karlistaren ondoren hasi ziren gauzak aldatzen, auzoa gaur ezagutzen duguna izateko bidean jartzen. Udalak, Alde Zaharraren gainbeheraz kontziente, “hiriaren etorkizun bakarra” Portuan zegoela erabaki zuen. Batetik, arrantza indarrean zelako. Baina bestetik, eta batez ere, hasiberria zen jarduera

ekonomiko batek sortu zuelako esperantza: turismoak. Lehen Gerra Karlistan herrian agertu ziren soldadu britainiar haiek hasi zuten: bainatzen ziren eta eguzkia hartzen zuten Portuko hareatzetan, herritarrengan harridura eragin, itsasoko bainuak osasunarentzat kaltegarriak zirela uste baitzen garai hartan. Horiek izan ziren lehen “bañistak”. Egun, izen horrekin ezagutzen dituzte oraindik hondarribiarrek turistak.

Eta egin dezagun guk ere soldadu britainiarrarena, izan gaitezen, egun batez behintzat, bañista. Eta has dezagun ibilbidea Madalen karrikan. Karrikaren gainaldean, eskailera mekanikoak jaisten hasten diren lekuan. Kotxea utz dezakegu bertan, garraio publikoa hobetu beharreko kontua baita Hondarribian. Eraiki aurretik auzo-erresistentziaren sinbolo —lelo gogoangarriekin, “Lajazia eskiletak dagozten bezela”—, behin eraikita, Leitzarane-kin gertatu moduan, mundu guztiak erabiltzen ditu. Jaisten ari garela, berehala ikusiko dugu Madalena ermita zegoen lekua, egun etxetxo batek hartu arren, erraz irudika daitekeena. Motza da karrika gero: Amparito agurtu eta berehala gaude, Santiago kalea gurutzatuta, San Pedro entzutetsuan.

Madalen karrikara jaisten diren eskailera mekanikoetan hasiko dugu txangoa.





Josu Zabala hil zuten txokoa, San Pedro kalean.

Soldadu britainiarraren paradisu

San Pedro kalea, beraz. Egun bateko soldadu britainiarraren paradisu. Ez alferrik, ostatu, pub, jatetxeak gehituta, 40 aukeratik gora ditu eskura bisitariak. Horietarik zenbait, gainera, adibidez Arrantzaleen Ermandadea, urte luzeetan familia beraren eskue-

tan, bestelako turismo eredu basatiagoengandik urrun. Bide batez, munduko arrain-zopa onena egiten omen dute jatetxe horretan, japoniarren arabera.

Itsasoari begira ezker muturrean dago Azken Portu, garai batean arrantzaleentzat izango zena, gaur egun beste legatz klase batzuk harrapatzeko portua den pub batekin. Bertatik hasten da Arrantzale auzoa ere, 1939ko etxe merkeen aldeko legeak akuilatuta eraiki eta, 46an, Francoren bustoaren aurrean, inauguratu zen etxadia. Junkien txokoa izan ondoren 80etan,

merketik gutxi izango dute egun 58 etxebizitza horiek. Baina San Pedro kale osoak merezi digu, Azken Portutik Zabalaren txokoraino behintzat. Txantxangorri ostatuan har dezakegu zerbait, 1976ko jaietan Guardia Zibilak hildako Josu Zabala irundarraren omenetan.

Oraindik indar pixka bat gorde behar baitugu, kresala bertatik bertara ukitzeko. Garai bateko Benta Zaharrera hurbiltzea dugu onena, Butroi pasealekua hasten den tokira. Hor nonbait jarriko zuen Espainiako errege Alfontso XIII.ak Nazioarteko Zubia deitu nahi izan ziotenaren lehen harria, 1928an. Baina Hondarribia eta Hendaia lotuko zituen zubi hori gabe ere etortzen dira gaur den egunean, saldoka, frantsesak—sinistu, frantsesak dira—. Luze gabe, bi ertzak batzen dituen txalupatxoan. Eta guk ere kontinente oso bat dugu begien pare, Bidasoaren bestaldean. Gero batzuek esango dute hau dela munduaren bukaera. Baina garai batean herriko senide pobrea bazen, aldeko haizeak jotzen dio gaur Portuari. Eta gehiago hartzen zaio, bukaera traza baino, mundu baten hasierarena. ■



Bisita tu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.



Arrain baten mukia ote da etorkizuneko zuntza?

GUELPH-EKO UNIBERTSITATEKO (Kanada) ikerlari talde baten arabera, mixina izeneko arrainak jariatzen duen mukiarekin balen aurkako txalekoak ekoizterik izango da, besteak beste.

Mixinak aingira itxura du, metro bat inguru luze da, itsas hondoa bizi da eta duela 300 milioi urte existitzen. Haren berezitasuna gorputz osoan barreiatuta dituen ehun bat guriak dira; horietatik jariatzen duen substantzia zurika, ura ukitzean, muki erako oihal ultraerresistente bihurtzen da.

Mukia mikra bateko diametroko hariz osaturik dago. Timothy Winegard ikerlariaren arabera, arrain bakar batek milioi bat kilometro hari sor dezake. Hariak uretatik atera eta lehorte ondoren, erresistentzia izugarria duten oihalak egin daitezke harekin. Esaterako, balen aurkako jantzietan erabiltzen direnak, dagoeneko esan dugunez.

Mixina akuarioetan haztea oso zaila da, ordea. Ikerlarien helburua, orain, mukia sortuko duten bakterioak aurkitzea da, gerora bakterio horiek laborategian haztea errazagoa izango delakoan. ■



MONSTERFISHWORLD.COM



Ilargia jo duen meteoritoaren bideoa

NASAk Ilargian eroritako hainbat meteoritoen irudiak lortu izan ditu, baina orain gutxi grabatutakoa azken zortzi urteetan behatutako handiena izan da. Iragan martxoaren 17an jo zuen Ilargia meteoritoak, eta 40 kilogramoko pisua zeukan. Hogei metroko diametroko kraterra eragin zuen.

ttiki.com/50839
(Frantsesez)

Gizakiaren zelula amak sortzeko bidea zabalik

Oregoneko Unibertsitatean (AEB) lortu dutena handia da benetan: gizakiaren zelula amak laborategian erreplikatzeko bidea zabaldu da, baina ez hori bakarrik, gizakia osorik klonatzeko ere bai.

ttiki.com/50840
(Gaztelaniaz)

Garoñakoa ez da amaitu

LERRO HAUEK Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren erabakia ezagutu aurretik idatzi badira ere, Nuclenor enpresak eskatutakoa onartuko dutelakoan gaude. Hau da, Garoñako zentral nuklearra zabalik mantentzeko baimena luzatzea beste urte batez.

Hedabide gehienek adierazi dutenez, Nuclenorrek baimenaren luzapena lortzen badu, beste hamazazpi urtez funtzionatzeko baimena eskuratu dezake *de facto*, urte horretan onartzea espero den energiaren lege berriaren arabera.

Oso posible da hori izatea Nuclenorren eskariaren arrazoi nagusia, baina gure ustez badago beste arrazoi bat: zentral bat itxi ondoren ia ezingo da erabat eraistea. Munduan hainbat zentral nuklear dago gaur egun eraiste fasean, eta guztietan sortzen ari dira ustekabeak eta konponbide zaileko arazoak. Beste hitz batzuekin esanda, esponenzialki hazten dira aurreikusitako eraisketa kostuak.

Horregatik uste dugu Garoña ez dutela itxiko, eta are gutxiago eraitsi. ■



Teklatu birtualak nonahi

AEBetako Carnegie Mellon Unibertsitateko ikerlariak, beraiek sortutako WorldKit sistemen bidez, interfaze bat prestatu dute non sofa baten besoa igurtzi ondoren, telebistarako balio duen urruneko agintea irudikatzea posible baiten. Ikerlanean aritutakoek adierazi dutenez, laster keinu hutsen bidez tresna birtualak lortu ahal izango dira.

ttiki.com/50841
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Pipermin eta galanperna

BARATZEAN ORAINDIK aldatu gabe ditut. Nire bihotzeko fruituak. Ameriketatik ekarriak; ondo ekarriak, alajaina. Geure herriko erriberetan ematen dira onenak. Finak, samurrak, leunak, sotilak... Piperrez ari naiz, *Capsicum sp*; ez edozein piperrez, ordea. Bada makina bat, lodi, luze, zakar, pottolo, gozo, gorri, sua dario-nik... Niri bera gustatzen: pipermina. Mehe luze txorrotx pinpirina. Pipermina hemen garatua da, Ameriketatik auskalo noiz ekarri eta urtetan bertoko baldintza ekologikoetara, klima eta lurrera, egokituz sortu den aldaera bat da. Ekotipoa deitzen dena, hemengo. Geurea, gure kulturak sortua.

Baratzean oraindik ez ditut landareak jarriak, eta dagoenerako jaten ari naiz. Gure herriko erribera oparoetan bere laborantzaz hedatua eta berari buruzko jakintza izugarria izanagatik nekeza zen santaixabeletako jaiak baino lehenago eskuratzea. Eta jaietan zituenak ederki finolatzen zuen... Lehenbiziko onddoak kalera paseatzera ekartzen dituenak edo udazkeneko aurreneko angulak

erakusten dituenaren paretsu. Bada, aurten marka hautsia dut: maiatzaren 11 izan dut herriko estreinako piperminen dasta. Gordinei lehen koskadizoak eta gero frijituak, holaxe ditut gustuko. Lehen ez bezala orain negutegietan egiten dira piperminak. Askoz garestiagoa da lana, baina merezi du, noski merezi duela. Dozena eurotik gora eskatzeko asmotan da piperzalea kiloko eta konturatzerako eskuz aldatuko direla iruditzen zait. Uda puri-purian, ekoizpena bere gorenean denean hiru eta bost euro artean ibiliko da. Orain arte hala izan da behintzat...

Aurten eguraldiak hartua duen martxarekin ez dakit zer atarramentu izango dugun. Negutegikoak jaten eta baratzeakoak landatu gabe... Giro lehorxeagoak etorriko al dira! Bestela baratzeetan jai dugu, eta jaietan ere beste urteetan halako hiru ordaindu behar.

Mendeko hamahirugarren urte honi xeble usaina hartzen hasi nago. Hona beste erakuskari bat:



egundo udazkenean besterik jan izan ez dudan perretxiko bat ere dastatua dagoenerako, galanpernak maiatzaren 16an. Fruitu urte eskasa izango denaren tankera ematen diot. Ondo bidez, udazkenean hitz egingo dugu. ■



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA ERREKONDO



Eme eta ar

Espezie batek bere sexualitatea garatuz erabat emeak eta erabat arrak izango diren landareak sortzera iristen denean, espezie dioikoa dela esaten da. Gorostia (*Ilex aquifolium*), kiwia (*Actinidia deliciosa*), hagina (*Taxus baccata*) eta abar hala dira. Hemen gorostien loreak: arrak—eskuineko argazkian—lore ugari ematen du, urte osoko bere lana erraza baita, udaberrian lorean dituen txorten horietatik polena zabaldu eta kitto. Emeak—ezkerrean—lorea urriago ematen du, arren polena jaso eta hortik sortutako koxkorrak urte osoan hazi zaindu eta heldu beharko baititu. Ireki ordurako gero koxkorra izango den hori berde ttiki antzematen da emearen lorean. ■

Urtxintxek ehungileen greba hautsi omen zutenekoa

LES VAGUES DE MANRESA



Ezkerrean, Kataluniako ehungintza fabrika 1911n. Alboan, garai hartako ehungintza sektoreko greba irudikatzen duen olioia.

MANLLEU (KATALUNIA), XX. MENDE HASIERA. Bartzelonako inguru osoan bezala, Ter ibaiak zeharkatzen duen udalerrian garapen industrial bizkorra izan zen aurreko mendean, energia hidraulikoak mugiarazten zituen ehungailuei esker. Baina mende aldaketarekin bat, ehungintzaren krisialdia iritsi zen, Espainiak azken koloniak galdu izanak merkatua asko murriztu zuelako gehienbat. Langileen baldintzak, aurrez ere gogorrak, larriagotu egin ziren, eta inguruko beste askok bezala, Manlleuko ehungileek grebara jotzea erabaki zuten behin baino gehiagotan.

Ehungintza fabriketako jabeak grebalarien eskulana ordezkatzeko zuten langileen bila aldameneko herrira joan omen ziren, Santa María de Corcó-ra. Baita ehungailuak martxan izateko adinako taldea bildu ere. Santa María de Corcóri *L'Esquirol* (katalanez, "urtxintxa") ere esaten diote, herrian izen bereko taberna ezaguna zegoelako, eta tabernan, kaiola batean sartuta, karraskari txikia. Horrenbestez, Manlleuko grebalariek haien ordezkari jarduten zuten greba-hausleei *esquirol* esaten hasi omen zitzairen. Izengoiti bitxia pixkanaka zabaldu zen, Kataluniako mugak ere gairitu zituen eta greba-hausleren sinonimo da gaur egun gaztelania hitz egiten den

lurraldeetan. Horixe da behintzat RAEk (Espainiako Errege Akademiak) bere hiztegian, *esquirol* hitzari dagoen atalean, jasotzen duen azalpena.

Bertsio hori bera jaso zuen Rafael Puget Manlleuko industrialariak bere memorietan, Josep Pla idazleak *Un senyor de Barcelona* (1945) lanean aipatu bezala. Gainera, Pugeten arabera, goitizena Katalunia osoko lehenengo grebetako batean sortu zen.

Beste iturri batzuen arabera, ordea, eskirol ezizenaren jatorria zaharragoa da, Kataluniako langile mugimendua jaiotzearekin bat sortutakoa, hau da, langileak greba borroka tresna gisa erabiltzen hasi baino lehenagokoa.

Bigarren bertsio hori hemerrotekan bermatzen da; 1941. urteko artikulua batean dagoeneko eskirolak aipatzen dira, eta kazetaria ez da Santa María de Corcóko biztanleez ari. Urte horretan, Igualada herrian, Bartzelonako Ehungileen Mutualitatea ezartzeak protestak eta liskarrak eragin zituen. Testuinguru horretan, mutualitatearekin bat egin zuten langileei "urtxintxa" esaten omen zieten, eta bazkide ez zirenei, aldiz, "mairu". ■



Arrastoak

Naziek lapurtutako ondarea erreskatatu nahi du Greziak

BUNDESARCHIV BILD




II. MUNDU GERRAN naziek indarrez ebatsitako ondarea itzultzeko eskatu du Atenasko gobernuak. Greziar agintarien arabera, alemaniarrek Neolito garaiko milaka pieza eraman zituzten, besteak beste. 1941 eta 1944 urteen artean galdutako ondarearen zerrenda ahalik eta osoena lortzeko

ikerketa egiten ari dira eta, piezak itzultzeko eskatzeaz gain, Greziak nazien okupazioaren kalte ordainak ere erreklamatu ditu: 162.000 milioi euro. Alemaniako gobernuak Greziaren erreskatearen zati handi bat bere gain hartu duela erantzun du. Nondik zatoz, mendira noa. ■

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Atzo borrokan, gaur ere bai

Administrazioek zerbitzu eta dirusarietan egin murrizketek kinka larrian utzi dituzte adinekoak. Hurrengo erasoak Espainiako Gobernuak iragarri du: 2013an pentsioen erreforma gogorra onartuko du. Iraganean lan baldintza duinen alde borrokan aritu zirenak, egun euren eskubideen defentsan borrokatzen jarraitu beharko dute.

| URKO APAOLAZA AVILA |



Azken urteotako giro erasokorraren testuinguruan, pentsiodun elkarte eta mugimenduek indarra hartu dute. Irudian, Nafarroako Adinekoen Koordinadorearen batzarra, joan den martxoan Iruñean egindako manifestazioaren aurretik.

ONGIZATE ESTATUA kolokan dago murrizketak direla medio. Maiatzaren 30ean Hego Euskal Herrian greba orokorra deitu dute sindikatu eta eragile sozialek; osasungintzan eta hezkuntzan azkenaldian hartutako neurriak nabarmendu dituzte kalera irteteko arrazoi nagusitzat. Europar Batasunak agindu eta “gobernu obedienteek” betetzen

dituzten erreforma, lege eta dekretuen kontra azaldu dira sindikatuok eta “kalitatezko zerbitzu publiko unibertsala” bermatzeko exijitu die instituzioei. Epe motzean, aizkorakada adinekoen lepora etor liteke, pentsioen sisteman murrizketa gogorra iragarri baitu Espainiako Gobernuak eta egun pentsioa kobratzen dutenei eragingo baitie zuzenean.

Euskal Herrian pentsioren bat jasotzen duten 700.000 lagun inguru daude, jubilatuz, alargun, umezurtz eta ezintasunen bat dutenen artean. Nafarroan 124.906, Bizkaian 272.600, Araban 67.565 eta Gipuzkoan 174.000. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako azken datu eguneratuak 2009koak dira, 58.947 pentsionista hain zuzen.

Adinekoak gero eta gehiago estutuz

Krisia gehien kolpatu dutenen artean daude adinekoak. Erabilitzaile nagusienetakoak izaki, jendarteko sektore hori larrutik nozitzen ari da zerbitzu publikoetan egin diren murrizketak. Yolanda Barcinaren gobernuak Nafarroan bultzatu duen osasungintzaren pribatizazio prozesua dugu gurean adibide deigarriena, ospitaleetan ingresaturik dauden aitona-amonek kalitate eskaseko sukalde zerbitzua dute orain.

Bestetik, langabeziaren gorakada itzelak ere izan du eraginik jubilatuen aurrezteko gaitasunean. Espainiako Estatistika Institutuak emandako azken datuen arabera, Hego Euskal Herriko 233.043 langabetutik ia herenak ez du inolako dirulaguntzarik jasotzen. Horietako asko euren gurasoen pentsioei esker bizi dira. CC.OOek Nafarroan egindako ikerketa batek dio bost urtetan 1.000tik 3.600era igo dela egoera horretan dauden familien kopurua. Erretiroa hartu duen adineko asko, familiaren euskarri ekonomiko izatera itzuli da.

Administrazio zentralak baliabide ekonomikoak epe motzean behar ditu. Horretarako, jadanik pentsioa kobratzen dutenen poltsikoan eskua sartuko du

Bizi-mailarekin konparatuz gero, pentsioen zenbatekoaren batez bestekoa -1.052 euro EAEn eta 970 euro Nafarroan- urtetik urtera murriztuz joango da; ohiko gobernuen politikaren ondorioa da. Espainiako Gobernuak azken aldiz 2011n erreformatu zuen pentsioen sistema eta bertan erabakitakoa (jubilazio adina atzeratzea, kotizatu beharreko urteak handitzea...) gradualki ezarriko dute. Bidearen amaieran %20ko murrizketa izan dezakete pentsioek.

Baina administrazio zentralak baliabide ekonomikoak epe motzean behar ditu. Horretarako, jadanik pentsioa kobratzen dutenen poltsikoan eskua sartzea baino ez du. Hala, 2013an onartuko duen pentsioen erreforma berriarekin urtero 2.000 milioi euro aurreztuko dituela kalkulatu du.

Dena den, erreforma hori burutu aurreko pauso bat jadanik eman du Gobernuak. Martxoaren 15eko Ministroen Kontseiluan aurre-erretiroa hartzeko zailtasun gehiago jarri zituen, erretiro-adin erreala atzeratzeko asmo irmoz. Erabaki horrekin urtean 570 milioi euro gehiago izango ditu beretzat.

"Iraunkortasun faktorea"

Fátima Báñez Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroak idatzitako dokumentu baten arabera, pentsioek "bilakaera maltzurra" izan dute, kontsumo prezioak eta soldatak baino gehiago hazi baitira urte askoan. Dokumentu horretan aipatzen da beharrezkoa dela "Iraunkortasun faktorea" aplikatzea. Hau da, hainbat aldagai lausoren aurreikuspena kontuan hartuta (bizi-itxaropena, demografia eta ekonomia indizeak...) pentsioak kalkulatzeko formula aldatu ahal izango da, "sistemari oreka emateko".

Gobernuaren aginduz "adituen" batzorde bat eratu da, faktore hori aztertu eta

proposamena egiteko; maiatzaren 31 arteko epea du. Baina badirudi Madrilén gauzak nahiko garbi dituztela. Iraunkortasun faktore hori aitzakia hartuta hainbat neurri iradoki dituzte, hala nola derrigorrezko erretiro adina 67 urtetik gorakoa izatea, kotizatu beharreko urte kopuruak are gehiago igotzea...

ELA sindikatuak, berriki kaleratutako idatzi batean dioenez pentsioen erreforma berriak ekarriko duen aldaketa nagusietako bat izango da "legez pen-

VITORIA
GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

KALDEARTE

- > **Atera doa**
KUKAI & LOGELA MULTIMEDIA
Ekainak 7, Espainia plaza, 22:30
- > **Ez zuten nik ikusitakoa kontatu**
HORTZMUGA
Ekainak 7, Andre M. Zuriaren plaza 00:00
- > **Amets Soinua**
UKITU
Ekainak 8, Probintzia plaza, 19:45
- > **Anplag**
AMEZTU PRODUKZIOAK + IMAGINACIONES NAI
Ekainak 9, Falerina lorategia, 18:30

HITZALDIAK

- > **Sare sozialak eta gizarte aldaketa**
Gorka Julio
Ekainak 5, 09:00
Aixkiria euskaltegia. AEK. Jose Mardones, 8
- > **Bakarrrik bidaiatu. Neska izan eta munduan barna ibili bidaiatzen**
Yolanda Muñoz
Ekainak 5, 19:00, OMIJ
- > **Salburuan txango ornitologikoa**
Azaitz Unanue
Ekainak 12, Saluburko parkea. AEK. 10:00

PRINCIPAL ANTZOKIA

- > **EMAZTEGAIAREN SEMEA**
Ados teatroa
Ekainak 6, 20:30
- > **IKASTURTE BUKAERAKO KONTZERTUA**
Udal Folklore Akademia
Ekainak 12, 20:00
- > **ARABAKO DANTZARIEN BILTZARRA**
Ekainak 14, 20:30

DANTZA PLAZA

- > **AIHOTZ PLAZA**
Ekainak 7, 20:00
Ekainak 14, 20:00
- > **SEFARAD PLAZA**
Ekainak 21, 20:00

SAN JOAN JAIK

JUDIMENDIN ETA IPAR-ARRIAGAN

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Pentsiodunen hainbat elkartek M30eko greban parte hartzeko deia egin dute.

tasioak KPIa adina igo behar ez izatea”. Hau da, eguneraketa-indizeak jaitsiz, pentsioa jasotzen dutenek erosteko ahalmena galduko dute eta galera hori betikotu egingo da. Neurri horrek bete-betean joko ditu pentsioen menpe bizi diren guztiak.

LABeko politika sozialen idazkari Bea Martxuetaren esanetan pentsioa eskubide gisa desagertu egingo da: “Badakigu zenbat jartzen dugun, baina ez etorkizunean zenbat kobratuko dugun”. Bere ustez, erreforma honekin pentsio sistema deuseztatu eta aseguru etxeei bidea ireki nahi diete. Hain justu, iraunkortasun faktorea aztertuko duen adituen batzordea, bankuen eta aseguratzileen ingurukoek osatzen dute batez ere.

Bestalde, LABeko idazkari nagusi Ainhoa Etxaidek ohartarazi du datorren asteak “garrantzi handikoak” izango direla eta ordua dela sindikatu eta mugimendu sozialen artean “gure alternatiba erakitze-ko”.

Pentsiodunak ez daude geldirik

Azken urteotako giro erasokorraren testuinguruan, pentsiodunen elkarre eta mugimenduek indarra hartu dute. Pentsioak prezioak adina igo-tzea izan da euren aldarrikapen nagusietako bat –Zapaterok izoztu egin zituen eta Rajoyk %1 soilik

igo—. Baina eskaera gehiago ere badituzte. Esaterako, 2013ko otsailean hainbat taldek mobilizazioak egin zituzten botiken berrordainketaren harira eta Iñigo Urkullu lehendakariari eskatu zioten “intsumiso” izan dadila Espainiako Gobernuaren aurrean.

Bizkaiko Pentsionistak Martxan-eko kide Carlos Ruizek *Bilbo-ko Brankan* argitaraturiko artikuluan batean oso argi laburbildu du bere ustez murrizketen aurrean izaten ari diren jokaera: “Erreakzionatu egin dugu eta plataformetan anto-

Nafarroan, esparru ideologiko ezberdinetako jubilatutako pentsionista elkarteek “belaunaldien arteko elkartasuna” aldarrikatu dute sektore ahulenak defendatzeko

latzen ari gara. Alternatibak sortu eta kalera irten gara, ez dugu abangoardiez hitz egin nahi, baina hazten doan borroka baten motor bihurtu gara, urte askotako lanaren ordainetan lorturiko eskubideak mantentzen daitezela bermatu behar dugu”.

Nafarroako esparru ideologiko ezberdinetako hainbat jubilatutako pentsiodunen taldek manifestu

Hollandek ere pentsioen sistema erreformatuko du

Hego Euskal Herriko pentsiodunak ez ezik, Iparraldekoak ere harrapa ditzake austeritate olatuak. Bruselak François Hollanderen gobernuari gomendatu dio lehenbailehen sartzea eskua pentsioetan. Frantziako patronalaren MEDEF erakundeak berriz, erretiro adina 62 urtetik 65era igotzeko eskatu dio Hollanderi. Azkeneko erreforma 2010eko azaroan egin zuen Frantziako Gobernuak, Sarkozy agintean zenean, eta ordukoan protesta handiak izan ziren, herrialdea –baita Ipar Euskal Herria ere– ia energia hornidurarik gabe uzteraino.

bateratua sinatu dute *Adinekoak krisiaren aurrean* izenburupean; jadanik ehundaka lagunen atxikimendua jaso du. Zehazki, Nafarroako Gobernuari eskatu diote berma ditzala pobrezia-aren atalase-mailatik gorako pentsioak, baita osasun sistema doako eta unibertsal ere. Manifestuak “belaunaldien arteko elkartasuna” aldarrikatu du, sektore ahulenak defendatzeko, eta dei egin du “murrizketen aurka konboka-

tzen diren ekimen guztietan parte hartzeko”.

Koordinadorak lehenengo mobilizazio bateratua orain bi hilabete izan zen; Iruñeko kaleetan manifestazioa egin zuten, 55 urtetik gorakoek subsidioa jaso eta aurre-erretiroa hartzeko Espainiako

Gobernuak jarri dituen zailtasunen aurrean protestatzeko.

Ez da azkenekoa izango, aste honetako greba orokorrean parte hartzeko deia egin baitute adinekoen hainbat taldek, tartean Pentsionistak Martxanek eta Duintasunak, Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarteak. ■



SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ESTITXU PINATXO
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU
EÑAUT ELORRIETA

Ekainak 14. 22:30tan
Antzizar Pilotalekua. Beasain



Eskolako lanak akuilu euskarara hurbiltzeko

Ikasletoetako haur kopurua hazten doa, baina ez da nahikoa, hizkuntzak eskolaz kanpo ere bizi behar du, herriko plazetan, jolas-parkeetan, mendian... Pixkanaka horren kontzientzia hartzen ari dira haurren erreferente direnak, gurasoak.

Testua eta argazkia:

| IURE EIZAGIRRE |



Itsasun, Seaskako guraso taldea gau eskolan. Mahaiburu Mixele Aguerre irakaslea, eta ondoren ezkerretik eskuinera: Xantu Weiss, Maite Garat, Dominique Alzualde, Xabi Etxeberria, Nadège Erdod's, Cyril Fortin eta Martine Mille.

BERAIEK EUSKARARIK GABE bizi arren, seme-alabei hizkuntza ikasteko aukera eskaintzen die zenbait gurasok. Hego Euskal Herrian ohikoa da euskaraz hitzik ez dakiten gurasoen haurrek D ereduan ikastea, Ipar Euskal Herrian ere gero eta gehiago dira ikastolan matrikulatzen diren umeak. Horrek bertutuko die txikienei euskara ikastea, baina inguruneak egin dezakeen lana ezinbestekoa da, Seaskako euskararen sentsibilizazio txostenak dioen moduan, “etxeak eta familiak ikastolaren luzapen afektiboa eskaini behar dute”.

Haurra ikastolan duten gurasoei ulertarazten diete umearen hizkun-

tza euskara dela, hau da, ez dela soilik ikastolako hizkuntza, eta eremu guztiak hartu behar dituela euskarak. Horretarako motibazio iturri eraginkorrena beraiek direla oroitarazten diete, eta esaten zaie euskara ez dela ume-hizkuntza. Gurasoak barneratzen doaz Seaskaren ideiak eta gero eta gehiago dira haurrek eta gurasoek aisialdia euskaraz gozatzeko egiten dituzten ekintzak.

Xan Aire Seaskako kideak Sarako ikastolan egiten duten *Gozatu* programa izan du hizpide. Astean behin familiak biltzen dira, haurrak gurasoekin, ikastolatik kanpo eta hainbat jarduera egiten dituzte. “Herriko plazan jokoak egin ditza-

kete edo joan daitezke oihanera gaztainak biltzera, gero gaualdi goxo bat egiteko. Horrelako gauzak egiten dituzte eta biziki interesgarria da”, azaldu du Airek.

Antzera funtzionatzen du *Euskaraz Biz*i egitasmoak. Euskal Herri osoan garatzen da eta Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean hainbat eremu jorratzen ditu: ikastolako haurren euskararen erabilpena ikastetxean eta handik kanpo, ikasletoetako hizkuntza politikak eta familia. Azken horri dagokionez, ikastola bakoitzak programa horretaz arduratzen den guraso talde bat du. Hori arduratzen da zentrotik kanpo gurasoekin ekintzak antola-

tzeaz edo herrietako beste elkarte eta instituzioekin harremanak izateaz, zerbitzuak nola euskalduntzen diren aztertzeke. Egun Iparraldeko 25 ikastoletan garatzen da *Euskaraz Biz* egitasmoa.

Gurasoek euskara ikasi eta erabiltzeko beste baliabide bat ere eskaintzen du Seaskak, honako hau AEKren laguntzarekin. Euskara ikasten ari diren ikastoletako gurasoei beka ematen die eta hainbat baldintza beteta, ikasturteko matrikularen prezioaren erdia itzultzen die Seaskak. Airek azaldu duenez, AEK-k programa bereziak —haurraren eta gurasoen arteko komunikazioan arreta berezia jartzen dutenak— antolatu izan ditu gurasoentzako, baita jolasak erakusteko ikastaro laburrak ere.

Euskara ikasteko grina

Euskara ikasten ari den guraso talde bat biltzen da asteazkenean hiru orduz Itsasuko (Lapurdi) gau eskolan. Eurak ez dira Seaskak eskaintako programez baliatzen baina bai Errobi Herri Elkargoak emandako diru laguntzaz.

Aditzei errepasoa ematen ari den zazpi pertsonako taldean aurten euskara ikasten hasitakoak zein bost urtez ari direnak batera daude. Euskara zergatik ikasten duten galdetuta, bakoitzak bere arrazoiak ematen ditu: “Jakiteko”, “mintzatzeko”, “pesta egiteko” edo “haurrarekin mintzatzeko, baita nire familiarekin ere”. Dominique Alzualde luhusorren hitzak dira azken horiek. Iparraldean haurrarekin bakarrik hitz egiten ei du euskaraz. Hegoaldera joaten denean, aldiz, euskaraz soilik egiten du Amaiurren bizi duen familiarekin. “Bitxia da, Bilbora joaten naiz eta han beti mintzatzen naiz euskaraz, eta hemen ez. Ez dakit zergatik”, aitortu du berak.

Seme-alaba txikiak dituztenen kasuan, gurasoak jabetzen dira

euren euskararekiko garapena haurrenarekin batera doala. Horrek txikiaren zuzentzetan eragin ditu zenbaitetan. Hala dio Xantu Weiss Urruñan bizi den kortsikarrak: “Nire semeak zuzentzen nau baina goxoa da”. Gauzak horrela eginda, aitaren eta zazpi urteko semearen arteko harremana ongi joango dela irizten dio Weissek.

Maite Garat ikaskide makearrak bi haur ditu, bat hiru urte eta erdikoa eta bestea zortzikoa. Txikiena orain hasi da amarekin euskaraz egiteko ohitura hartzen, zaharrenari gehiago kostatzen zaio. Hasieran

Gurasoak jabetzen dira euren euskararekiko garapena haurrenarekin batera doala. Horrek txikiaren gurasoei zuzentzea eragin du zenbaitetan

frantsesez eta euskaraz hitz egiten zuten, eta zaharrenak frantsesez erantzuteko ohitura hartu du. “Haurra ttikia zenean zenbait momentutan frantsesez egiten nuen; zerbait hobeki esplikatuta nahi banuen frantsesez hasten nintzen eta gero euskaraz, aise mintzatzen banintzen gauzak esplikatzeke, euskaraz egiten nuen”, dio Garatek.

Euskara ikasi arren, zaila egiten zaie oraindik erabiltzea. Nadège Erdod'sek lau haur ditu eta etxeko lanak euskaraz egitea hobe dela baieztatzen badu ere, umeekin egunero euskaraz egitea zaila dela aitortzen du.

Lanekin lagundu ahal izateko beharrezkoa dute euskarazko irakaskuntza jakin bat jasotzea eta horretan laguntzen diete eskolan. Weissek semeari lagundu ahal izateko matematika hiztegia eskatu dio irakasleari eta Mixele Aguerrek lantzeko dutela agindu dio.

Aisialdiaren garrantziaz jabetuta, ariketa berria proposatu die irakasleak: bost jolasen azalpenak eman dizkie frantsesez. Binaka edo hiru-naka, bat aukeratu, ulertu eta ikaskideei euskaraz azaltzeko prestatu behar dute. Oraingoan beraiek izango dira irakasle, eta biharkoan seme-alaben joko erakusle.

Hizkuntza erabiltzeko espazioak falta

Eguneroko errealtatea inork baino hobeto ezagutzen dutelakoan, ikasleei euskaraz bizi daitekeen galdegin diegu. Batzuek berehala erantzun dute ezetz, Weissek bestelako hausnarketa egin eta pertsonak topatu behar direla adierazi du, nahiz eta zaila den.

Iritzi berekoa da Aguerre irakaslea ere, ingurune euskalduna bilatzea oso zaila dela eta ikasleek ahaletan bikoitza egin behar dutela uste du, batetik euskara ikasi eta bestetik

hori erabiltzeko eremuak bilatu. Horregatik, AEK-k ezin ditu Iparraldean Hegoaldean gauzatzen dituen hainbat egitasmo burutu, Mintzalaguna esaterako, zaila baita horretarako euskaldunak aurkitzea. Baina azaldu duenez, bada antzeko egitasmorik: Hendaian euskara eta frantsesa ikasteko trukea egiten dute. Hegoaldetik heldutako jende askok frantsesez ikasi nahi duela aprobetxatuz, elkarrekin batzuetan frantsesez eta bestetan euskaraz egiten dute.

Ikastola bidezko euskalduntzean du itxaropena Aguerrek. Itsasu inguruan ikastola dezente dago kilometro gutxitan eta horrek etorkizunean bateko eta besteko haurrak euskaraz erlazionatzea eragin dezakeela sinesten du. Oraingoan, herriko dantza taldeak eskolak euskaraz ematea eragin du haurrak ikastolara joateak. ■



Babeslea: Hernaniko Udala



Bizikletaz bizi, Euskaraz mugitu.

Inguruko herriak ebakuatzea gomendatu du geologo batek

Antonio Casas geologo eta Zaragozako Unibertsitateko irakaslearen hitzetan, Esa urtegiaren presa arriskuan dago, handitze lanen eraginez “igotzen” ari baita.

| JON TORNER ZABALA |

DANI BLANCO



PRESAZ BEHERAKO herritarrak eba-kuatzea komeni dela esan du, Antonio Casas geologoak, Aragoiko Gorteetan eginiko agerraldian: “Nire iritziz, egoera ez da arrisku-tua, dramatikoa baizik, aurretik ere higadurak sufritu dituzten materia-lak erabiltzen ari direlako”.

Juan Luis Sanchez de Muniain Nafarroako Gobernuak bozerama-leak azaldu duenez, Ebroko Konfe-derazio Hidrografikoek egindako txostenek ez dute kezkatzeko moti-borik ematen: “Casasen sinesgarri-tasuna auzitan jarri gabe, gogoratu behar dugu tankerako alarma piztu zuela Itoizko presaren balizko higa-duren aurrean”, adierazi du.

Irakaslearen hitzetan, ordea, presa “igotzen” ari dela diote aipatu txostenek: “Presa arriskuan dago. Ez diot nik, Konfederazioaren txos-tenek baizik. Ez dut esaten Zango-za oraintxe ebakatu behar denik, baina simulakroak egiten hasi beharko lirateke”.

Zentzu horretan, Yesa+No / Lanak Gelditu koordinakundeak

eta Angel Navallas Zangozako alka-teak egoeraren “larritasunaz” ohar-tarazi dute. Koordinakundeko kide Iker Aramendiak handitze lanak geratu, uraren maila jaitsi, obren zuzendaritza aldatu eta ikerketa independentea egiteko eskatu du. Bildu, Aralar, I-E eta Geroa Bai alderdiek ere handitze lanek “zalan-tzak” sortzen dituztela diote. Aitzi-tik, Nafarroako Gobernuaren hitzak bere eginez, alarmarako

motiborik ez dagoela esan du PSNk.

Presaz beherakoek ez ezik, urak hartuko dituen lurretan –Aragoin– bizi direnek ere proiektua kritikatu dute. Obren aurkako erresistentzia-ren ikur bilakatu den Artiedako alka-te Javier Jiménezek hain-bat nekazariri urtegiaren alboan zituzten lurak gogoz kontra kendu diz-kietela salatu du. ■



MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



LUAarkitektoak
hirigintza
ningintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitzaren proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Kutxabankek euskararekiko duen jarrera salatu du EHEk

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ herri mugimenduaren ustez, Gipuzkoa Donostia Kutxak euskaldunen hizkuntza eskubideen alorrean atzera egin du Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako kutxek bat egin dutenetik. Kutxabankek langileen eta bezeroen kezak iritsi zaizkio EHEri.

Kexa gehienak Gipuzkoatik jaso dituzte, eta horregatik, maiatzaren 22an, Gipuzkoa Donostia Kutxako hizkuntza kudeatzailearekin bildu ziren. Egoeraren berri eman zioten EHEko hainbat kidek eta hizkuntza kudeatzaileak adierazi zien salaketa Kutxabankek Bilbon duen zuzendaritzara igortzeko konpromisoa hartuko zuela.

EHEk Kutxako ordezkariari emandako eskutitzean ondoko hizkuntza eskubide urraketak agertzen dira:

-Bezeroei arreta eskaintzeko pos-

tuetan erdaldun elebakarrak diren langileak ezarri dituzte. Orain arte, postu horietan euskaraz normaltasun osoz aritzeko aukera zegoen.

-Bezeroek euskara hautatua izanagatik, kutxazainetan gaztelania lehenetsi dute orain.

-Kutxak duela urte batzuk barne mailako sistema informatikoa euskaraz ezartzea lortu zuen. Batera-tzearen ondoren gaztelania hutsean funtzionatzen duen sistema ipini dute.

-Hainbat bezerok Kutxarekin harremana (gutun eta jakinarazpen bidez) euskaraz zuen. Bada orain, gaztelaniaz jaso dituzte.

EHEren ustez, Gipuzkoa Donostia Kutxak euskaldunekiko harremana euskaraz izateko lorpen esanguratsuak egin ditu urte askoan, baina kutxen bateratzearekin lan guztia bertan behera geratu da.

Bahea

Iñaki Urkijo AEK-ko kideak Bizkaiko Ezkerraldeaz Berrian esanak:

“Eskola orduetan eta eskolaz kanpo-ko jardueretan, umeek euskararekin identifikatzen duten espazio bat dute. Eta behin hortik kalera irteten direnean, helduen erdarazko dinamikan sartzen dira. Horregatik, umeen eta gazteen artean euskaldun pasiboaren figura sortzen ari gara. Ere- mu formaletik kanpo erdaraz erosoago aritzen direnen figura, gehienbat, gurasoak hala ikusten dituztelako. Esango nuke ez dutela hizkuntza gatazkarik bizi, kontzienteki ez be- hintzat. Hori landu behar dugu. Helduok gure artean euskaraz aritzeko ahale- gin handiagoa eginez, erakutsi behar diegu euren eremu ez-formaletan ere hitz egin dezaketela euskaraz”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Greba orokorra, beste urrats bat

ASTE HONETAN, MAIATZAREN 30EAN, Hego Euskal Herriko langile, pentsiodun eta herritarrek oro har, greba orokorra egitera deitu ditu sindikatuen gehien- goak, murrizketa ekonomiko eta sozialen kontra. Madrildik eta Bruselatik inposatu, eta Gasteizko nahiz Iruñeko gobernu otzanek ezarri dituzten murrizketak dira. Erantzuna bi faktorek zehaztuko dute: batetik, halako neurriekiko herritarrek duten asperraldia, batzuetan amore emateko sentsazioa (“ezin da ezer egin”, “ez dago alternatibarik”...) eta ondorioz desmobilizazioa ekar dezakeena; bestetik, ekintza sindikalerako batasun eza, sindikatu estatalis- tek ez baitute greba babestu.

Hala ere, hamarnaka mila lagunek egingo dute bat grebarekin, argi baitute mobilizazio iraunkor eta oro- korrak baino ez dituela mugituko kapitalismoaren arduradun eta kudeatzaile politikoak. Greba orokor honek merezi izango du. Berriz ere entzungo ditugu kapitalismoaren kudeatzaileak eta bere lekaioak esa-

ten grebak ez duela ezertarako balio izan, egoera okertu baizik ez duela egiten. Esan beharra dute. Baina leherketa sozial handiago baten beldur dira, eta badakite greba hau urrats bat gehiago izango dela sis- tema kapitalistaren bihotza erasotzeko. Indar sozial, sindikal eta politikoak batzeko urrats bat gehiago, jen- dartearen kontzientziazioan beste urrats bat. Izan ere, herritarrek gero eta hobe ikusten dute egungo klase borroka, eta ohartu dira ez dela XIX. mendeko kontu bat; kapitalak langileen eta herri sektoreen kontra hasi duen borroka latza da. Bestalde, greba hau urratsa da nazio subiranotasunera bidean, eta ondorioz, euskal esparru sozio-ekonomikoa sortzeko. Kapitalismoaren eta bere kudeatzaileen aurrean belaunikatzen ez den eta hortzak erakusten dizkien euskal jen- darteak, duintasunez emandako beste urrats bat izango da.

Juan Mari Arregi



Zatoz Alemaniara, lana nahi duten ausarten paradisura

“Zoazte Alemaniara” diotse gazte espainiarrei, gureei barne, 1971n Pedro Lazagaren “*Vente para Alemania, Pepe*” film lotsagarri hartan kantatutako antzeko doinu. Zain dauzkate araurik gabeko lanpostuen ugazabak. Ezagutu Mathilde Ramadierren istorioa. Arrakastarako jaioa dirudien emakume gazte bizkor baten bizipenak dira.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EGIAZKO IZEN-DEITURAZ SINATU du bere kontakizuna Mathilde Ramadierrek *Le Nouvel Observateur* astekariaren taldeko *Rue 89* aldizkari elektronikoan. Adore handiz izenpetu du “*Dans une start-up à Berlin, j’ai devouvert le cynisme absolu*” (Berlingo *start-up* enpresa batean ezagutu dut zinismo erabatekoa), aldarrikatu nahi duelako “Alemaniak ez lukeela izan behar eredugarri, han laneko legeak ez direlako batera txukunak”.

Hona nola deskribatzen duen *start-up* bat gaztelaniazko Wikipediak: “Ibilbide laburreko negozio bat da, ezaugarri dituen bere arrisku/irabazi perfila eta hazteko ahalmen handia (*escalabilidad*). Gehienbat berrikuntza, teknologien garapen, web diseinu, web garapen eta kapital-arrisku sailetako enpresak izaten dira. Sorkuntzazko negozio ideia moduan hasi ohi dira, ondoren berrikuntzaren bitartez berezitasuna gehitu eta azkenik negozio bilakatzeko”. Zer besterik ari dira ereiten enpresaburu gazte ekintzaileak (*jóvenes emprendedores*) sustatzen dituzten unibertsitate eta gisa guztietako programak?

Mathilde Ramadierrek (Frantziako hegoaldea, 1987) betidanik maite izan du idatziarekin eta irudiekin lan egitea. Bere 25 urteekin hiru urtez grafismoa ikasia da eta filoso-

fian masterra egina. Tartean, ikasketak pagatzeko, hainbat lan txikitari aritu da: garbitzaile, zerbitzari, egunkari saltzaile, irakasle... Aldi berean urratsak emanez marrazki bizi-dunetarako eszenagile moduan.

2011n heldu zen Berlina, ez Frantzian lanik ez zeukalako, Alemaniako hiriburuan ofizioa garatzeko aukera hobeak izatearren. Irakasleek gomendatzen zioten doktoregoaren hiru kurtsoei ekiteko adina diru ez zeukalako ere bai.

Berlingo ostatu batean hasi lanean beltzean eta aldi berean enplegu interesgarriagoetarako deialdietara aurkeztu. Arte galeria ezagun batetik deitu zioten arte eta lana eskaini, grafista eta laguntzaile, 1.500 euro hilean, goizak libre izango omen zituen alemana hobetzeko. Estreina hilabeteko frogatua, hori bai.

Lehen ezustekoa, 400 euro ordainduko diote *free-lance* kontratu batekin: seguritate soziala langilearen kontu, “hilean 150-600 euro artean kostatzen da Alemanian, osasun onekoa baldin bazara”.

Horra grafista 9:00etatik 19:00etara buru-belarri lanean Berlinen diseinuaz antolatu nahi duten museo baterako dossier handi bat egiten. Proposatu diote frantsesez mintza dadin, hobeto espiatzeko konkurrentziako museoak; Mathil-

Marrazki handia (Pariseko Luxembourg parkea 1910ean) Mathilde Ramadierrek komiki baterako egindako eszenatokia da. Anaïs Depommier adiskideak egin dion erretratu txikikoa Mathilde bera da. *Rue 89*en idatzi du Berlinen egokitutako esperientziak: “*Start-up*en iragarkietan harriturik irakurtzen dut ‘*flat hierarchy*’ direla, hierarkia laua daukatela. Egia, baldin gaur edozein langile baldin bada 1.200 euro gordin azpitik pagatutako ‘*country manager*’, managerrak lan bakarria emaitzak apuntatzea daukala, nerabezaroa gainditu bako patro baten kapritxoaren arabera lan eginez. (...) *Start up* hauek, kapitalik gabeko fundatzaileei dirua azkar egitea baimenduz, inbertsiogile diru-gose eta presadunak erakartzeko, hauek dira etengabe zabaltzen ari den eredu ekonomikoaren eredu. (...) Horietan mamitzen da kapitalismoak bere burua are gehiago makurtzeko daukan erantzuna: erabateko zinismoa”.

dek uko. Eskatuko diote ordu estrak sartzea kobratu gabe; Mathildek uko berriro.

Lankide alemaniarrek ez dute txintik ateratzen, estatuaren lan bilaketa programan aritzeagatik daukaten laguntza ez galtzearen. Mathilde ere isilduko da 400 euro miserableen beharrez: kontratuan idatzia da hilaren hondarrean nagusiak ez daukala zertan ezer pagaturik emaitza gustukoa ez bazaio, langilea autonomoa da.

Marrazo nerabeen erresuma

Hilabeteren buruan ugazaba gazte xarmagarria datorkio, *Pradaz* jantziarik. Lastima, ezingo dizugu agindutako 1.500ik pagatu, gehienera jota 500. Baina jakin behar duzu karrera handi bat daukazula aurrean Berlinen, kultura eta galeria famatu batean lan egiteko zoria, eta lana, askok ez daukatena. “Nik erantzun diot ez dela onargarria bete behar horiek burutzea diru hain gutxiren truke. Hark hotzean diost: ‘Ezin duzu ala ez duzu nahi?’ Orduan ohartu naiz Alemanian ez dagoela gutxieneko soldatarik”.

Konpainia hori utzita, lan hobe bila segitzen du Mathildek, denbora berean gisa askotako beharretan lau sosen truke. 2013ko martxoan deitu diote Berlinen artearen merkatuan ari den *start-up* batetik. Skypez elka-



rrizketatzeko konbitea, Mathilde bera Berlinen izan arren ez baitu merezi denbora galtzea.

Bi aste beranduago ekingo dio postu berriari: “*Country manager France*”. Zeregina: Frantzian arte garaikidean dauden bildumagile guztien zerrendarekin dossiera osatzea frantsesez eta ingelesez. Beren jokabideak, kolekzioak, psikologia... *Start-up* honek mundu osoko kolekziogileen data basea osatu nahi du, munduan bakarra, informazio hori saltzeko galeriei, artistei, kultur erakundeei... Soldata: hilean 950 euro gordin, astean lau egun lana.

Mathildez gain hamar lagun gehiago daude kontratatuturik, India, Txina, Japonia, Espainia, Ingalate-

rra, AEB, Israel eta Alemaniatik etorriak, nork bere herrialdearen informea egin dezan. Gehienak Berlinen hegazkinetik jaitsi berriak dira, etorkin. Hizkuntza, ingelesa. Egoitza Mitte auzo garestian.

Zuzendari eta fundatzailea lehenetik beste *start-up*ak sortua da, abiatu eta sei hilabeteren buruan saltzeko. “Irudikatu dezaket zer gertatu zaien haietako langileei”, diotso bere buruari Mathildek. Harvadetik doktorego eta guzti ateratako 27 urteko gaztea, nagusia hedabideek harro *Silicon Allee* deitzen dioten auzoko heroietako bat, *Web 2.0* guztiak txalotua, bera bezalakoei esker apalduko baita Berlingo langabezia, Alemaniako %6,9aren aldean %12,3koa dena.

Langile bakoitza bakarturik ari da beharrean, nork bere etxetik ekarritako ordenagailuari sudurrik kendu gabe. Aski du batek hitz egitea, enkargatua oihuka hasiko zaio.

Egun batzuen bueltan, berrikuntza, gela handiaren erdian ipinitako ohol zurian apuntatu behar du bakoitzak lortutako emaitza egunaren akaberan. Biharamun goizean *managerrak* apuntatuko ditu batzuen eta besteen arrakasta mailak.

Hirugarren astea badoa eta disenatzaile-filosofo gaztea pentsatzen ari da laster egokituko zaiola mailaz igotzea, %87,3ko arrakasta lorturik. Nagusia agertuko da bisitaldi laburrean, emaitzaz betetako oholari erreparatu eta iragarriko du asteko onenak jasoko duela Amazonen 100 euroko erosketa egiteko bonoa. Lankide txinatarra irabazle.

Langile guztiak ohartzen dira gero eta gehiago txinatarrek dituela ugazabak kontratatuko, apaltasunera ohitutako behargin saiatuak dira. Xefak langileak banan bana bisitatzen ditu, seguru izateko denek eta bakoitzak ulertu dutela mezua. Mathilde: “Nire txanda iritsita, esan diot ahal dudana egiten dudala, baina langideekin lehiatzea ez dela nire estiloa. Berak ‘I don’t care’ [Niri bost axola] erantzun dit. Iltzaturik geratu zait buruan. Nire azken eguna da han”.

Mathilde Ramadierrek, Parisa itzulita idazten duelarik, ez luke berari gertatua orokortu nahi. “Baina iruditzen zait daukadan adinerako oso triste egotea adina ikusi dudala, eta esan dezakedala garai etsigarriak bizi ditugula”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Bai, klase borroka da

GREBA OROKORRAK une zehatz batean zerbait konpon dezakeen ala ez, hori da sindikatuek deialdia egiten duten bakoitzean zabaltzen den galdera nagusietakoa eta, hainbat arrazoiengatik, erantzunak ere ez dira erabat garbiak. Batetik, greba orokor baten helburua ez da momentuan ezer konpontzea, gizarteko botere harremanetan eragiteko langile klasea eta klase ertainen indar agerpen bat baizik. Bestetik, goi mailako klaseak babesten dituzten botere ekonomiko eta instituzionalak ere, egunerokoan buru belarri ari dira borroka horretan, eta orain arte nagusitasuna erakutsiz gainera.

Bitxia da, greba eskubidea lorpen sozial gisa saldu ohi dute egungo demokrazia liberalek, klase borrokan langileak lortutako lorpen gisa. Eskolan eta unibertsitateetan ikasitako kontuak dira, baina hori bai, irakaspen horiek iraganeko kontu gisa gura dituzte askok. Berdin gertatzen da hauteskondeekin eta sufragio unibertsalarekin, lorpen sozial eta politikoak dira, baina hauek bai, hauek demokraziaren adierazpen goren moduan saltzen dira: “demokraziaren festa”.

Greba eskubidea indarrean jartzen denean, orde, demokraziaren aurkako gisa saltzen da Estatuaren bozgorailuetatik: liskarra da, ez du ezer konponduko, errealtatearen kontrakoa da, instituzioetatik kanpo ez da ezer lortuko... Iraganeko aldaketa politiko eta sozialak azaltzeko balio du klase borrokarenak, baina, antza, egungoa azaltzeko. Edo hori nahiko litzateke bederen

SOBIET BATASUNAREN blokea hondoratu zenean historia amaitu

zela iragarri zuen Francis Fukuyama ideologo neoliberal ospetsuak: ideologia borrokaren amaiera, AEBen eta kapitalismoaren garai- pen erabatekoa irudikatu nahi zuen esaldiak, hortik aurrera zoriontasunaren eraikitzea besterik ez balego moduan. Nagusitasun hark, aldiz, egungo krisiaren areagotzea besterik ez zuen ekarri, XX. mendeko Krisi Handiaren ondoren, kapitalismoak izan duen handiena. Eta kontua da, kapitalismoaren indarrak ondo baino hobeto antolatu direla krisi zorrotzenez ere diruaren interesak ondo defenditzeko, eta klase langile eta ertainak ezinean dabilatzala azken bi hamarkadetako erasoaldiaren aurrean.

Mendebaldeko herrialdeek munduko ekonomi indarraren erdia galduko dute 2030erako

Ez da diskurtso hutsa, eta European inon baino hobeto ikusten da hori. 1945etik 1975era kapitalismoaren urrezko urteak bizi izan ziren Europako mendebaldean: ongizate gizartearen eremuan sakonduz, gizarteko sektore oso zabalek munduan ordura arte lortutako bizimaila handiena erdietsi zuten. Eta berriro akademiara eta eskolara joz, azalpena nahiko kontsentsuzkoa da: garapen teknologikoa giltzarri izan zen ekonomi hazkunderako, eta estatuen barneko langile indarren presioa eta bloke komunistaren presioa giltzarri izan ziren ongizatearen estatuak aberastasuna banatzeko egindako ahaleginean.

Munduaren testuinguruan, hazkunde ekonomiko itzela gertatzen

ari da hainbat herrialdetan: Txina, India, Brasil, Errusia, Hegoafrika... eta horren ondorioz, datozen 20 urteetan 3.000 milioi pertsona gehiago iragango da klase ertainen sektore zabal eta malgu horretara. Ez da zalantzarik honek eragin handia izango duela kliman, baliabideen erabileran, energia behar- rean... eta baita ere klase borro- ken indar harremanean. 1990eko hamarkadan, 1500 milioi pertsona gehitu zitzaizkion munduko lan merkatu- ra, batez ere Txina, India eta SESB ohiaren bloketik etorriak. Horrek eragin handia izan zuen mundu mailako lan merka- tuan, lan indarraren prezioa jaitsiz eta, batez ere herrialde garatueta- ko langile klasearen baldintzak okerrera bultzatuz. AEBeta- ko NICen arabera (National Intelligence Council, CIA- ren azterketa geopolitiko eta ekonomikoak egiten dituen erakundea), Mendebaldeko herrialdeek indar ekonomi-


koaren erdia galduko ei dute hemendik eta 2030era (%56tik %25era). Batek daki hala izango den zehazki, baina joera hori dela bai. Eta horren aurrean, norbaitek pentsatzen du aberatsenak halako diru galera erraldoia besterik gabe onartu behar dutela? Haiek euren tresnak dituzte eta erabiltzen ari dira.

Langile eta klase ertainen tresna dira greba, mobilizazioa, negozi- azio kolektiboa, hauteskundeak, gizarte mugimenduak, ekonomia soziala, estatuen partehartze han- dia ekonomian, ikerketa eta gara- pena, zerga presio handiagoa... Esparru horietan guz- tietan emango da XXI. mende hasieran bizi-bizi den klase borroka. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



SDB

Sortuko dira besteak 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ESTITXU PINATXO
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU
EÑAUT ELORRIETA

Ekainak 14, 22:30tan
Antzizar Pilotalekua, Beasain



Kontzertua Sortuko dira besteak

Ekainak 14, ostirala 22:30tan
Antzizar Pilotalekuan
BEASAIN

3 harpideentzat
bina sarrera **1**

SDB

Sortuko dira besteak 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ARANTXA IRAZUSTA
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU
HARKAITZ CANO EÑAUT ELORRIETA

Ekainak 21, 20:30tan
Leidor Antzokia, Tolosa



Kontzertua Sortuko dira besteak Joxan Lizarribar gogoan

Ekainak 21, ostirala 20:30tan
Leidor Antzokia
TOLOSA

3 harpideentzat
bina sarrera **2**

Inguru Abentura

Eskalada (I. maila)
3 harpideentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5



AZKEN IRABAZLEAK (2369. Argia)

A FUEGO NEGRO jatetxea

- Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Maite Arrizabalaga Txurruka (Mutriku)
- Arrigorriagako Udal Euskategia (Arrigorriaga)
- Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Jesus Lazkanoiturburu Arregi (Legazpi)
- Andoaingo Udala Euskara Zerbitzua (Andoain)
- Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Unai Dorronsoro Zeberio (Bilbo)
- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)
- Araitx Jauregi Lejona (Legutio)

ILLIMANI

- Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)
- Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com